



# JUNTAS GENERALES DE ALAVA

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

### SUPLEMENTO

al Boletín Oficial  
del Territorio  
Histórico de Álava

### GEHIGARRIA

Araba Lurralde  
Historikoaren  
Aldizkari Ofiziala

30. zk.

2005eko martxoaren 11, ostirala - Viernes, 11 de marzo de 2005

nº 30

#### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1.467

Arabako Biltzar Nagusiek, 2005eko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi zuten:

6/2005 FORU ARAUA, OTSAILAREN 28KOA, ARABAKO ZERGA OROKORRARI BURUZKOA

##### ZIOEN AZALPENA

Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra duela hogeita hiru urte onetsi zen. Aldi horretan hainbat aldaketa izan ditu Foru Arauak, eta batzuk oso garrantzitsuak, gainera. Hala ere, gizar-teak eta, jakina, Arabak izan duten bilakaera dela eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokor berria onestea komeni da, gainerako zerga-arautegiaren oinarria baita.

Duela hogeita hiru urtekoaren aldean, gaur egungo teknologia-aren egoera oso bestelakoa da; horren erakusgarria da zergen kudeaketan eta zergapekoen eta Administrazioaren arteko harremanetan izan den aldaketa. Hain zuzen ere, autolikidazio-sistema erruz erabiltzen da, konturako ordainketak geroago eta garrantzitsuagoak dira eta azken aldi honetan aurrerapen handiak izan dira informazioaren gizartea deritzon horretan, besteak beste; horregatik guztiagatik Zergei buruzko Foru Orokor berria behar da, egungo egoerara moldatua.

Beraz, oraintxe dugu aukera Zergei buruzko Foru Arau Orokor moderno onesteko, zerga-arautegia gaur egungo kudeaketa-moduetara moldatu eta kudeaketa eraginkorra izatea ahalbidetuko duen eta iruzurraren aurkako borroka hobetuko duen sistema arina ezarriko duen Foru Araua. Jakina, eraberritze honetan kontuan izan behar dira herriarren eskubideak eta bermeak eta zerga-prozedurak erraztu behar dira.

Kontzertu Ekonomikoak lurralde historikoetako erakunde eskudunei eman die euren lurraldeko zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko eskumena. Gainera, ezarri du erakundeok zergei buruzko

#### JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1.467

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria celebrada el día 28 de febrero de 2005, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 6/2005, DE 28 DE FEBRERO, GENERAL TRIBUTARIA DE ÁLAVA

##### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Han transcurrido ya veintitrés años desde que se aprobó la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Álava. A lo largo de dicho periodo la mencionada Norma Foral ha experimentado numerosas modificaciones, algunas de ellas de gran calado. A pesar de ello, la evolución experimentada en la sociedad y, por supuesto, en Álava, hacen aconsejable la aprobación de una nueva Norma Foral General Tributaria que es, en definitiva, la Norma Foral en la que se apoya el resto de la normativa tributaria.

Poco tiene que ver la situación de la tecnología actual con la existente hace veintitrés años y prueba de ello es el cambio experimentado en la gestión de los tributos y en la manera de relacionarse el obligado tributario con la Administración. La generalización del sistema de autoliquidación, la creciente importancia que se viene atribuyendo a los pagos a cuenta, o los avances experimentados en los últimos tiempos por la denominada sociedad de la información son sólo algunos ejemplos que ayudan a concluir que una nueva Norma Foral General Tributaria, más acorde con los tiempos actuales, resulta necesaria.

Es este el momento, por tanto, de aprobar una Norma Foral General Tributaria moderna, que ponga al día la normativa de acuerdo con la manera actual de gestionar los tributos, dotando al sistema de la agilidad necesaria para una gestión eficaz que, además, permita avanzar en la lucha contra el fraude teniendo en cuenta, al mismo tiempo, los derechos y garantías de los ciudadanos y la simplificación de los procedimientos tributarios.

El Concierto Económico atribuye a las Instituciones competentes de los Territorios Históricos la competencia para mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, su régimen tributario y pre-

arautegia prestatzean Zerga Lege Orokorrera terminoetan eta kontzeptuetan baizik ez direla egokitu behar.

Foru arau berria aurrekoa baino didaktikoagoa da eta hobeto egituratuta dago, eta erabat aurreratu du zergen arloko zuzenbide orokorraren sistematizazioa. Horrez gainera, orain arte foru esparruan araututa egon ez diren gai batzuk arautu ditu.

Arauk bost titulu ditu, hona: Zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak; tributuak; tributuen aplikazioa; zehatzeko ahala; administrazio-bideko berrikuspena.

I. tituluaren ("Zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak"), Arabako zerga-sistemaren printzipio orokorrak ezartzeaz gainera, iturrien sistema, foru araua eman behar den kasuak eta zerga-arauek interpretatzeko, kalifikatzeko eta aplikatzeko sistema zehaztu dira. Hori dela eta, aipatu behar da itzurpenaren aurkako klausula sartu dela lege-iruzurrari buruzko erregulazioaren orde, aplikatzean arazo batzuk eman ditu eta.

II. tituluaren ("Tributuak") zerga-betebeharraren inguruko kontzeptu klasikoak zehaztu dira (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak, zerga-egitatea, salbuespena, sortzapena, zerga-oinarria, karga-tasa, etab.) eta zerga-betebehar motak bereiztu dira: batetik zerga-betebehar nagusia eta bestetik gaur egun garrantzi handia duten zerga-sistemako beste betebehar batzuk, esaterako konturako ordainketak egin beharra eta zergen zioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.

Berandutza-interesak direla eta, aipatu beharra dago Administrazioak Foru Arauan ebazpena emateko ezarritako epeak bete ezean ez direla eskatuko. Beste alde batetik, aitortpena errekerimendurik gabe epez kanpo aurkezteagatik errekaruaren eta betearazpen-aldiko errekaruaren arauetan zerga-betebeharra betezea sustatu da.

Beste alde batetik, testu berrian ezarri denaren arabera, Administrazioak herritarrei interesak ordaindu behar dizkienean, zerga bakoitzari buruzko arautegiaren araberrako itzulketen ondorioz zein bidegabeko sarrerak itzultzearen ondorioz, berandutza- interesa aplikatuko da, hain zuzen ere Administrazioak berak eskatzen duena zergadunek euren zerga-betebeharretan berandutzen direnean. Are gehiago, berandutza- interesa bermeen kostuak itzultzearekin batera ordainduko da.

III. titulua ("Tributuen aplikazioa") da foru arau honetan berrikuntza gehien duena. Batetik, Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedurak arautu dira. Prozedura horietan zerga-ordainketarako proposamenak nabarmendu behar dira; beraien bidez zergapekoen segurtasun juridikoa areagotu nahi da kasu oso konplexuetan edo eragin handikoetan.

Bestetik, II. kapituluaren zerga-prozedura guztietan, berariazko arauetan besterik xedatu ezean, aplikatu beharreko arau orokorrak ezarri dira. Halaber, aipatu behar da urtero Zerga Administrazioak iruzurraren aurkako plana prestatuko duela.

Zergen kudeaketari dagokionez, prozedura berriak arautu dira eta, gainera, azken aurrerapenak bildu dira; aipagarriena likidazio-proposamena da.

Orobat, oso garrantzitsua da egiaztapen mugatuaren prozedura berria. Beraren bidez kudeaketa-organoei hainbat egiaztapen-jarduketa egin ahal izango dituzte eta, esaterako, egiaztatu nahi den zergapekoaren merkataritzako kontabilitatearen kopia aztertu ahal izango da.

Ikuskapen-prozeduretan ere aldaketa garrantzitsuak egin dira. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupenari dagokionez, hamabi hilabeteko epea ezarri da, arau orokor gisa. Beste alde batetik, egiaztapen eta ikerketakoaz gainera beste ikuskapen-prozedura batzuk ere ezarri dira, ikuskapen-jarduketan prozedura erabat finkatzeko.

Azkenik, zergen bilketaz denaz bezainbatean, xedapen arautzaileak hobeto sistematizatzeko gainera, enbargo-agindua malgutu da eta erantzuleen eta beraien oinordekoen aurkako prozedura arautu da.

IV. tituluaren zehatzeko ahala arautu da; zehapenak zerga-zorretik bereiz arautu dira, bai alderdi materialak, bai formalak. Zergen arloko arau-haustearen ziozko erantzukizunik izango ez den kasuak zehaztu dira; kasu horietan, zergapekoak bere betebeharrak betetzeko asmoarekin prestu jardun duela noiz pentsatuko den finkatu da.

vé que, a la hora de elaborar la normativa tributaria foral únicamente tiene que adecuarse a la Ley General Tributaria en cuanto a terminología y conceptos.

La nueva Norma Foral, además de ser más didáctica y estar mejor estructurada que la anterior, supone un gran avance en la sistematización del derecho tributario general. Pero además resulta de especial relevancia porque regula algunos aspectos que carecían de regulación específica foral.

El texto consta de cinco Títulos, que son los siguientes: Disposiciones generales de ordenamiento tributario; los tributos; la aplicación de los tributos; la potestad sancionadora; y revisión en vía administrativa.

El Título I, "Disposiciones generales del ordenamiento tributario", además de establecer los Principios Generales del sistema tributario alavés, determina su sistema de fuentes, los supuestos de reserva de Norma Foral o el sistema de interpretación, calificación e interpretación de las normas tributarias. En este sentido cabe destacar la inclusión de la figura de la cláusula antielusión, que viene a sustituir a la regulación del fraude de ley, que había generado algunos problemas en su aplicación.

El Título II, "Los tributos", define los conceptos clásicos de la obligación tributaria (impuestos, tasas y contribuciones especiales, hecho imponible, exención, devengo, base imponible, tipo de gravamen, etc.), y distingue entre varias clases de obligaciones tributarias, diferenciando la obligación tributaria principal y otras obligaciones que en el sistema tributario de hoy en día han cobrado especial relevancia, como son la obligación tributaria de realizar pagos a cuenta y las obligaciones entre particulares resultantes del tributo.

En materia de Intereses de demora cabe destacar que no se exigirán en el supuesto de que la Administración incumpla los plazos previstos en la propia Norma Foral para resolver. Por otra parte, se fomenta el cumplimiento de las obligaciones tributarias en la regulación de los recargos por presentación extemporánea de autoliquidaciones sin requerimiento previo, y en los recargos del período ejecutivo.

Por otra parte, el nuevo texto normativo prevé que cuando la Administración tenga que abonar intereses a los ciudadanos, tanto por devoluciones derivadas de la normativa de cada tributo como por devolución de ingresos indebidos, el interés a abonar será el de demora, que es el que exige la Administración en el supuesto de cumplimiento tardío de obligaciones tributarias. Incluso se abonará el interés de demora junto con el reembolso de los costes de garantías.

En el Título III, "La aplicación de los tributos", es donde mayores novedades se introducen en esta Norma Foral. En primer lugar, se regulan los procedimientos de vinculación administrativa previa, entre los que destaca el de las propuestas de tributación, que pretende una mayor seguridad jurídica para el obligado tributario en aquellos supuestos que sean de una especial complejidad o trascendencia.

Es destacable, también, el Capítulo II, que recoge una serie de normas comunes que serán de aplicación a todos los procedimientos tributarios en general, salvo que en su regulación específica se establezca otra cosa. Asimismo resulta relevante, dentro de la lucha contra el fraude, el Plan que para esta finalidad elaborará anualmente la Administración tributaria.

Por lo que se refiere a la gestión tributaria, se da cobertura a nuevos procedimientos, y se recogen, además, los últimos avances entre los que destaca el de la propuesta de liquidación.

Asimismo, es especialmente relevante el nuevo procedimiento de comprobación limitada, por medio del cual los órganos de gestión podrán llevar a cabo determinadas actuaciones de comprobación, para lo que podrán, incluso examinar la copia de la contabilidad mercantil del obligado tributario objeto de comprobación.

Dentro de los procedimientos de inspección también se introducen cambios relevantes. Por lo que se refiere al plazo de duración del procedimiento de comprobación e investigación, se establece, como regla general en doce meses. Por otra parte, se prevén otros procedimientos de inspección, además del de comprobación e investigación, que darán cobertura procedimental a las actuaciones inspectoras.

Por último, por lo que se refiere a la recaudación de los tributos, además de una mejor sistematización de sus disposiciones reguladoras, cabe destacar la flexibilización del orden de embargo y la regulación del procedimiento frente a responsables y sucesores.

El Título IV se refiere a la potestad sancionadora, y regula las sanciones de manera autónoma de la deuda tributaria, tanto en sus aspectos materiales como formales. Se determinan los supuestos que no darán lugar a responsabilidad por infracción tributaria y, entre ellos, se desarrollan los casos en los que se entenderá que el obligado tributario ha puesto la diligencia necesaria en el cumplimiento de sus obligaciones.

Zehapen-sistema nahikoa erraztu da; hain zuzen ere, zehapen-kategoria batzuk ezabatu dira, zehapenak mailakatzeko lau irizpide baizik ez dira ezarri eta zergapekoa erregularizazioarekin zein zehapenarekin ados dagoenean %40ko txikipena aplikatu ahal izango da.

Zehapen-prozedura zerga aplikatzeko prozeduratik bereiz burotuko da, oro har. Hala ere, adostasun-aktetan eta zergapekoak eskatzen duen kasuetan, bi prozedurak batera egingo dira, prozesu-ekonomiaren mesederako.

Azkenik, Foru Arauan ezarri da zehapen bat inpugnatuz gero betearazpena besterik gabe etengo dela, hots, ez dela egongo bermerik aurkeztu beharrik administrazio-bidean irmoa izan arte.

V. tituluan ere berrikuntza garrantzitsuak daude administrazio-bideko berrikuspenari buruz. Batetik, berrikuspeneko prozedura berezian sistema hobetu da eta Administrazioaren egintzen errebokazioaren figura sartu da zerga-arautegian (aparteko inguruabarretan aplikatuko da).

Bestetik, berraztertzeo errekurtsoaren eta Administrazioarekiko diru-erreklamazioaren prozedura arautu da. Epea hamabost egunetik hilabetera luzatu da bietan.

## I. TITULUA ZERGA-ORDENAMENDUAREN XEDAPEN OROKORRAK

### I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

#### 1. artikulua.- Helburua eta aplikazio eremua.

Foru arau honek Arabako Lurralde Historikoko zerga-sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta zergen arloko foru administrazioari aplikatuko zaio.

Bizkaiko toki-entitateei ere aplikatuko zaie, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunen arautegian ezarritakoaren arabera.

#### 2. artikulua.- Zerga-sistemaren antolamenduaren eta aplikazioaren printzipioak.

1. Zerga-sistemaren antolamendua, zergak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan eta justizia, orokortasun, berdintasun, aurrerakortasun, zerga-zamaren banaketa zuzenaren eta konfiskazio ezaren printzipioetan oinarritzen da.

2. Zerga-sistemaren aplikazioa betebeharrak formalak betetzetik eratorritako zeharkako kostuen proportzionaltasunaren eta eragin-kortasunaren eta haiek mugatzearen printzipioetan oinarrituko da; zerga-sistema aplikatzean zergapekoen eskubideak eta bermeak errespetatu behar dira.

#### 3. artikulua.- Zergen arloko ahala.

1. Arabako Biltzar Nagusiek dute lurralde historiko honetako zerga-erregimena zaintzeko, ezartzeko eta arautzeko ahala, betiere Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoarekin bat etorritz.

2. Arabako Lurralde Historikoko toki-entitateek zergak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, ordenamendu juridikoaren arabera.

3. Zuzenbide publikoko gainerako erakundeek ere zergak eskatu ahal izango dituzte, foru arau batek hala zehaztuz gero.

#### 4. artikulua.- Arauak emateko ahala.

1. Foru Aldundiak du zergei buruzko arauak emateko ahala; nolahi ere, toki-entitateek toki-zergak arautzen dituzten zerga-ordenantzak eman ahal dituzte.

2. Foru arau batek, edo araudi batek, berariaz xedatzen duenean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailko foru diputatuak zergen arloko xedapenak eman ahal izango ditu.

#### 5. artikulua.- Zerga Administrazioa.

1. Foru arau honen ondoretarako, III., IV. eta V. tituluetan araututako eginkizunak dituzten organoek osatuko dute Zerga Administrazioa.

2. Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokio zergak aplikatzeko eta zehartzeko ahala, baldin eta foru arau bidez zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde bati berariaz eratziki ez bazaio.

El sistema sancionador se simplifica sustancialmente, suprimiendo la diferenciación entre categorías de sanciones y estableciendo únicamente cuatro criterios de graduación de las sanciones y una posibilidad de reducción del 40 por 100 de la sanción para los supuestos de conformidad del obligado tributario, tanto a la regulación como a la sanción.

Por lo que respecta al procedimiento sancionador se establece, como criterio general, el del procedimiento separado al de aplicación de los tributos. Sin embargo, en las actas de conformidad y en aquellos otros supuestos en los que el obligado tributario lo solicite, el procedimiento será conjunto, en beneficio de la economía procesal.

Por último, la Norma Foral mantiene que en el caso de impugnación de la sanción, su ejecución quedará suspendida sin necesidad de aportar garantías hasta que sea firme en vía administrativa.

El Título V, relativo a la revisión en vía administrativa, también incluye importantes novedades. En primer lugar, se incluye una mejora sistemática de los procedimientos especiales de revisión y se incorpora a la normativa tributaria la figura de la revocación de los actos de la Administración, prevista para cuando concurren determinadas circunstancias excepcionales.

Asimismo, esta Norma Foral introduce en la normativa foral la regulación del procedimiento del recurso de reposición y de las reclamaciones económico-administrativas. En ambos casos el plazo se eleva de quince días a un mes.

## TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES DEL ORDENAMIENTO TRIBUTARIO

### CAPÍTULO I. PRINCIPIOS GENERALES

#### Artículo 1.- Objeto y ámbito de aplicación.

La presente Norma Foral establece los principios y las normas jurídicas generales del sistema tributario del Territorio Histórico de Álava y será de aplicación a la Administración tributaria foral.

Asimismo será de aplicación a las Entidades Locales de Álava en los términos establecidos en la normativa reguladora de las Haciendas Locales de este Territorio Histórico.

#### Artículo 2.- Principios de la ordenación y aplicación del sistema tributario.

1. La ordenación del sistema tributario se basa en la capacidad económica de las personas obligadas a satisfacer los tributos y en los principios de justicia, generalidad, igualdad, progresividad, equitativa distribución de la carga tributaria y no confiscatoriedad.

2. La aplicación del sistema tributario se basará en los principios de proporcionalidad, eficacia y limitación de costes indirectos derivados del cumplimiento de obligaciones formales y asegurará el respeto de los derechos y garantías de los obligados tributarios.

#### Artículo 3.- Potestad tributaria.

1. La potestad originaria para mantener, establecer y regular el régimen tributario del Territorio Histórico de Álava corresponde a sus Juntas Generales, y se ejercerá en los términos previstos en el Concierto Económico.

2. Las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava podrán establecer y exigir tributos con arreglo al ordenamiento jurídico.

3. Las demás Entidades de Derecho Público podrán exigir tributos, cuando una Norma Foral así lo determine.

#### Artículo 4.- Potestad reglamentaria.

1. La potestad reglamentaria para el desarrollo de las normas tributarias corresponde a la Diputación Foral, sin perjuicio de las facultades que corresponden a las Entidades Locales en relación con las Ordenanzas fiscales reguladoras de los tributos locales.

2. Cuando así lo disponga expresamente una Norma Foral o, en su caso, un Reglamento, el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos podrá dictar disposiciones de desarrollo en materia tributaria.

#### Artículo 5.- La Administración tributaria.

1. A los efectos de esta Norma Foral, la Administración tributaria estará integrada por los órganos que desarrollen las funciones reguladas en sus Títulos III, IV y V.

2. En el ámbito de competencias de la Diputación Foral, la aplicación de los tributos y el ejercicio de la potestad sancionadora corresponde al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, salvo que expresamente se hallen atribuidas a otro órgano o entidad de derecho público mediante Norma Foral.

3. Foru Aldundiak Estatu osoan baliarazi ahal izango ditu zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko eskumenak, betiere Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoari lotuta.

4. Toki-entitateek zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko eskumenak baliarazi ahal izango dituzte, baina iturri-sistemaren arabera aplikatu beharreko arautegian aurreikusten den irismenarekin eta bertan ezarritakoarekin bat etorriz.

5. Foru Aldundia gainerako zerga administrazioekin lankidetzan arituko da zergak ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera aplikatzeko.

Halaber, toki-entitateen arteko eta hauen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako bideak ezarri ahal izango dira zergak aplikatzeko.

## II. KAPITULUA ZERGEI BURUZKO ARAUAK

### 1. ATALA ARAU-ITURRIAK

#### 6. artikulua.- Zerga-ordenamenduaren iturriak.

1. Zergetan, izaera gorabehera, jarraian adieraziko direnak izango dira aginduzko:

a) Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa.

b) Lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta lankidetzarako Eusko Legebiltzarrak ematen dituen arauak.

c) Foru arau hau, zerga bakoitza arautzen duten foru arauak eta zergen arloko xedapenak dituzten gainerako foru arauak.

d) Aurrekoak garatzeko asmoarekin, eta bereziki toki-zergen esparruan, ematen diren arauzko xedapenak eta bidezko zerga-ordenantzak.

2. Zergei buruzko klausularen bat duten nazioarteko tratatuak edo hitzarmenak aplikatuko dira eta, batez ere, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenak, barruko ordenamendu juridikokoak badira.

3. Europako Batasunak eta zergen esparruko eskumenak dituzten nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuek ematen dituzten arauak aplikatuko dira.

4. Bestalde, Administrazio Zuzenbideko xedapen orokorrak eta Zuzenbide Erkideko manuak ordezkokoak izango dira.

#### 7. artikulua.- Zergei buruzko foru araua noiz eman.

Foru arau bidez arautuko dira:

a) Zerga-egitatearen, sortzapenaren, zerga-oinarriaren eta likidazio-oinarriaren mugaketa, karga-tasaren eta zerga-zorren zenbatekoan zuzeneko eragileak diren gainerako elementuen finkapena (konturako ordainketen zenbatekoa izan ezik), eta aurkako frogarik onartzen ez duten presuntzioen ezarpena.

b) Zergen arloan konturako ordainketak egin beharra sortzen duten kasuak.

c) Foru arau honetako 35. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako zergapekoen eta erantzuleen zehaztapena.

d) Salbuespenen, txikipenen, hobarien, kenkarien eta gainerako zerga-onura eta zerga-pizgarrien ezarpena, aldaketa, ezabatzea eta luzamendua.

e) Errekarguen eta berandutza-interesak ordaindu beharrendu ezarpena eta aldaketa.

f) Preskripzio eta iraungitasun epeen eta epe horien zenbaketa eteteko kausen ezarpena eta aldaketa.

g) Zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen ezarpena eta aldaketa.

h) Zerga-betebehar nagusiak eta konturako ordainketak bete-tezari buruzko aitortpenak eta autoliquidazioak aurkeztu beharra.

i) Zerga-betebeharrak ez betetzeak egintza edo negozio juridikoen eraginkortasunean izan ditzakeen ondorioak.

j) Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.

k) Zerga-zorren barkamena eta luzamendu eta kiten emakida orokorra.

3. La Diputación Foral ejercerá sus competencias en materia de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones en todo el territorio del Estado, en los términos establecidos en el Concierto Económico.

4. Las Entidades Locales ejercerán las competencias relativas a la aplicación de los tributos y a la potestad sancionadora con el alcance y en los términos previstos en la normativa que resulte aplicable según su sistema de fuentes.

5. La Diputación Foral colaborará con el resto de las Administraciones tributarias para la aplicación de los tributos en los términos establecidos en el ordenamiento jurídico.

Asimismo, podrán establecerse fórmulas de colaboración para la aplicación de los tributos entre las Entidades Locales, así como entre éstas y la Diputación Foral.

## CAPÍTULO II NORMAS TRIBUTARIAS

### SECCIÓN 1ª FUENTES NORMATIVAS

#### Artículo 6.- Fuentes del ordenamiento tributario.

1. Los tributos, cualesquiera que sean su naturaleza y carácter, se regirán:

a) Por la Constitución, el Estatuto de Autonomía y el Concierto Económico.

b) Por las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración mutua entre las instituciones de los Territorios Históricos dicte el Parlamento Vasco.

c) Por la presente Norma Foral, por las Normas Forales reguladoras de cada tributo y por las demás Normas Forales que contengan disposiciones en materia tributaria.

d) Por las disposiciones reglamentarias dictadas en desarrollo de las anteriores y, específicamente en el ámbito tributario local, por las correspondientes ordenanzas fiscales.

2. Serán de aplicación los Tratados o Convenios internacionales que contengan cláusulas de naturaleza tributaria y, en particular, los Convenios para evitar la doble imposición, que formen parte del ordenamiento jurídico interno.

3. Serán de aplicación las normas que dicte la Unión Europea y otros organismos internacionales o supranacionales a los que se atribuya el ejercicio de competencias en materia tributaria.

4. Tendrán carácter supletorio las disposiciones generales del Derecho Administrativo y los preceptos del derecho común.

#### Artículo 7.- Reserva de Norma Foral tributaria.

Se regularán en todo caso por Norma Foral:

a) La delimitación del hecho imponible, del devengo, de la base imponible y liquidable, la fijación del tipo de gravamen y de los demás elementos directamente determinantes de la cuantía de la deuda tributaria, con excepción del importe de los pagos a cuenta, así como el establecimiento de presunciones que no admitan prueba en contrario.

b) Los supuestos que dan lugar al nacimiento de las obligaciones tributarias de realizar pagos a cuenta.

c) La determinación de los obligados tributarios previstos en el apartado 2 del artículo 35 de esta Norma Foral y de los responsables.

d) El establecimiento, modificación, supresión y prórroga de las exenciones, reducciones, bonificaciones, deducciones y demás beneficios o incentivos fiscales.

e) El establecimiento y modificación de los recargos y de la obligación de abonar intereses de demora.

f) El establecimiento y modificación de los plazos de prescripción, así como de las causas de interrupción del cómputo de dichos plazos.

g) El establecimiento y modificación de las infracciones y sanciones tributarias.

h) La obligación de presentar declaraciones y autoliquidaciones referidas al cumplimiento de la obligación tributaria principal y la de pagos a cuenta.

i) Las consecuencias del incumplimiento de las obligaciones tributarias respecto de la eficacia de los actos o negocios jurídicos.

j) Las obligaciones entre particulares resultantes de los tributos.

k) La condonación de deudas tributarias y la concesión con carácter general de moratorias y quitas.

l) Administrazioarekiko diru-errekamazioa eragin dezaketen egintzen zehaztapena.

m) Zergen arloko esku-hartze iraunkorrak ezartzea dakarten kasuak.

#### **8. artikulua.- Zerga-presako dekretu arauemailea.**

1. Presa dela eta, Diputatu Nagusiak edo Foru Aldundiak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, foru arau mailako xedapen orokorrak eman ahal izango dituzte zerga-arauak ezartzeko edo egokitzeke.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako xedapen orokorrak zerga-presako dekretu arauemaileak izango dira; dekretuok Biltzar nagusiei aurkeztuko zaizkie, indarreko arautegiarekin bat etorriz baietsi edo ezets ditzaten.

### *2. ATALA ZERGEI BURUZKO ARAUEN APLIKAZIOA*

#### **9. artikulua.- Zergei buruzko arauen denbora-eremua.**

1. Zergei buruzko arauak Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen direnetik egutegiko hogeiegun pasatutakoan jarriko dira indarrean (besterik xedatu ezean) eta epe jakina ezarri ezean ez dute izango mugaegunik.

2. Besterik xedatu ezean, zergei buruzko arauak ez dute atzeraeraginik izango eta arauak indarrean jartzen direnetik sortutako zergei (edozein zergalditako) eta orduan hasten den zergaldiko gainetarako zergei aplikatuko zaizkie.

Nolanahi ere, zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimena eta errekarguen erregimena arautzen dituzten arauak atzeraeragina izango dute irmo ez diren egintzetan, baldin eta haien aplikazioa interesdunaren onurarako bada.

3. Xedapen orokorrak balio gabetzeak eta, bere kasuan, balio gabetze horren ondorioz onesten diren xedapenen aplikatzeak, bertiere sortutako egitate zerga gargarrietan eragina badute, ez du kontrako eraginik izango derrigorrezko zergadunentzat irizpide konstituzionalen eragina dutenean.

#### **10. artikulua.- Zergei buruzko arauak aplikatzeko irizpideak.**

Foru arau bidez kasu bakoitzerako egoitzari edo lurraldetasunari buruz ezartzen diren irizpideak aintzat hartuta aplikatuko dira zergak. Bestela, zerga pertsonalak egoitza irizpide hartuta eskatuko dira eta gainerako zergak kargatutako gaiaren izaerarako egokiena den lurraldetasun-irizpidearen arabera.

### *3. ATALA INTERPRETAZIOA, KALIFIKAZIOA ETA INTEGRAZIOA*

#### **11. artikulua.- Zergei buruzko arauen interpretazioa.**

1. Zergei buruzko arauak Kode Zibileko 3. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.

2. Zerga-arautegian zehazten ez diren heinean, bertako arauetan erabiltzen diren terminoak euren adiera juridikoan, teknikoan edo ohikoan (kasuan kasukoan) ulertu behar dira.

3. Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak soilik eman ditzake zergen arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatu edo argitzeko xedapenak.

Interpretazio- eta argibide-xedapenak Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira eta Zerga Administrazioaren organo guztiek bete beharko dituzte.

#### **12. artikulua.- Kalifikazioa.**

Zerga-betebeharrak egindako egitatearen, egintzaren edo negozioaren izaera juridikoaren arabera eskatuko dira, interesdunek eman dioten itxura edo izena kontuan hartu gabe. Horren baliozko-tasuna uki dezaketen akatsak alde batera utziko dira.

#### **13. artikulua.- Analogiaz jokatzea debekatuta dago.**

Ez da onartuko analogia zerga-egitatearen, zerga-salbuespenaren eta gainerako zerga-onuren eta -pizgarrien eremua muga zehaztatetik haratago hedatzeko.

#### **14. artikulua.- Itzurpenaren aurkako klausula.**

1. Artikulu honetan arautzen den itzurpenaren aurkako klausula zerga-egitate osoa edo beraren zati bat ekiditen denean edo zerga-oinarria nahiz zerga-zorra ondoko bi inguruabarrak betetzen dituzten egintza edo negozioen bidez gutxitzen denean aplikatu ahal izango da. Hona inguruabarrak:

l) La determinación de los actos susceptibles de reclamación en vía económico-administrativa.

m) Los supuestos en que proceda el establecimiento de las intervenciones tributarias de carácter permanente.

#### **Artículo 8.- Decreto Normativo de Urgencia Fiscal.**

1. Por razones de urgencia y siempre que convenga establecer o adaptar normas tributarias, el Diputado General o la Diputación Foral, a propuesta del Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, podrá dictar disposiciones generales con rango de Norma Foral.

2. Las disposiciones de carácter general a que se refiere el apartado anterior se denominarán Decretos Normativos de Urgencia Fiscal y serán sometidas a las Juntas Generales para su convalidación o revocación de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

### *SECCIÓN 2ª APLICACIÓN DE LAS NORMAS TRIBUTARIAS*

#### **Artículo 9.- Ámbito temporal de las normas tributarias.**

1. Las normas tributarias entrarán en vigor a los veinte días naturales de su completa publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, si en ellas no se dispone otra cosa, y se aplicarán por plazo indefinido, salvo que se fije un plazo determinado.

2. Salvo que se disponga lo contrario, las normas tributarias no tendrán efecto retroactivo y se aplicarán a los tributos sin período impositivo devengados a partir de su entrada en vigor y a los demás tributos cuyo período impositivo se inicie desde ese momento.

No obstante, las normas que regulen el régimen de infracciones y sanciones tributarias y el de los recargos tendrán efectos retroactivos respecto de los actos que no sean firmes, cuando su aplicación resulte más favorable para el interesado.

3.-La anulación de disposiciones generales y la aplicación de las que, en su caso, se aprueben como consecuencia de dicha anulación, que afecten a hechos impositivos ya devengados, no conllevará efectos desfavorables para los obligados tributarios cuando resulten afectados principios constitucionales.

#### **Artículo 10.- Criterios de sujeción a las normas tributarias.**

Los tributos se aplicarán conforme a los criterios de residencia o territorialidad que, por Norma Foral, se establezcan en cada caso. En su defecto, los tributos de carácter personal se exigirán conforme al criterio de residencia y los demás tributos conforme al criterio de territorialidad que resulte más adecuado a la naturaleza del objeto gravado.

### *SECCIÓN 3ª INTERPRETACIÓN, CALIFICACIÓN E INTEGRACIÓN*

#### **Artículo 11.- Interpretación de las normas tributarias.**

1. Las normas tributarias se interpretarán con arreglo a lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 3 del Código Civil.

2. En tanto no se definan por la normativa tributaria, los términos empleados en sus normas se entenderán conforme a su sentido jurídico, técnico o usual, según proceda.

3. En el ámbito de las competencias de la Diputación Foral, la facultad de dictar disposiciones interpretativas o aclaratorias de las Normas Forales y demás disposiciones en materia tributaria corresponde de forma exclusiva al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Las disposiciones interpretativas o aclaratorias serán de obligado cumplimiento para todos los órganos de la Administración tributaria y se publicarán en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

#### **Artículo 12.- Calificación.**

Las obligaciones tributarias se exigirán con arreglo a la naturaleza jurídica del hecho, acto o negocio realizado, cualquiera que sea la forma o denominación que los interesados le hubieran dado, y prescindiendo de los defectos que pudieran afectar a su validez.

#### **Artículo 13.- Prohibición de la analogía.**

No se admitirá la analogía para extender más allá de sus términos estrictos el ámbito del hecho imponible, de las exenciones y demás beneficios o incentivos fiscales.

#### **Artículo 14.- Cláusula antielusión.**

1. Será aplicable la cláusula antielusión regulada en el presente artículo cuando se evite total o parcialmente la realización del hecho imponible o se minore la base o la deuda tributaria mediante actos o negocios en los que concurren las dos siguientes circunstancias:

a) Banaka nahiz taldeka kontuan hartuta, izan den emaitza lortzeko artifizio handikoak edo desagokiak izatea.

b) Horien erabilerak zerga-aurrezkia eta ohiko edo norberaren egintzek zein negoziok sortutako ondoreak ez beste ondorio juridiko edo ekonomiko garrantzitsurik ez izatea.

2. Zerga Administrazioak aurreko idatz-zatian arautzen den kausa gertatu dela adierazteko, foru arau honetako 163. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren likidazioetan zergak eskatzeko, ohiko edo norberaren egintza zein negoziok dagokien araua aplikatu da, lortu diren zerga-onurak ezabatu egingo dira eta berandutza-interesak likidatuko dira. Ez da zehapenik ezarriko.

#### **15. artikulua.- Simulazioa.**

1. Simulazioa gertatzen den egintzetan edo negoziotan, alderdiek benetan egindako zerga-egitatea kargatuko da.

2. Simulazioa gertatu dela Zerga Administrazioak adieraziko du likidazio-egintzan; nolahi ere, kalifikazio horrek zergen arloan baikik ez ditu izango ondoreak.

3. Simulazioaren ondorioz egin beharreko erregularizazioen berandutza-interesak eskatuko dira, eta bidezkoa denean zehapena ere bai.

### **II. TITULUA TRIBUTUAK**

#### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. ATALA KONTZEPTUAK, XEDEAK ETA MOTAK**

#### **16. artikulua.- Kontzeptuak, xedeak eta motak.**

1. Tributuak sarrera publikoak dira, hain zuzen ere herri administrazioek foru arau batek zergak ordaindu beharrek lotzen duen zerga-egitate bat egiteagatik eskatzen dituzten diru-prestazioak; beraien helburu nagusia gastu publikoei eusteko beharrezkoak diren kopuruak lortzea da.

Horrez gainera, tributuak politika ekonomiko orokorreko bitarteko gisa erabili ahal dira, gizarte egonkorra eta aurreratua lortzeko eta errenta ahalik eta modurik egokienean banatzeko.

2. Tributuak, zeinahi ere den beraien izena, honela sailkatzen dira: tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.

a) Tasak zerga-egitate hau duten tributuak dira: herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea edo zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea Zuzenbide Publikoko erregimenean, hain zuzen ere zergapekoei dagozkienak, haiek ukitzen dituztenak edo haiei onura ekartzen dietenak, baldin eta zerbitzu edo jarduera hauek ez badituzte beraiek eskatzen edo ez badituzte euren borondatez jasotzen eta ez badituzte egiten sektore pribatukoak.

Zerbitzuak edo jarduerak Zuzenbide Publikoko erregimenean eman edo gauzatu direla ulertuko da, administrazioaren legerian zerbitzu publikoa kudeatzeko aurreikusitako moduetako baten bidez burutzen direnean eta beraien titularra herri izakia denean.

b) Kontribuzio bereziak zerga-egitate hau duten tributuak dira: herri lanak egitearen edo zerbitzu publikoak ezarri nahiz zabaltzearen ondorioz zergapekoak mozkina izatea edo beraren ondasunen balioa gehitzea.

c) Zergak kontraprestaziorik gabe eskatzen diren tributuak dira eta beraien zerga-egitatea zergadunaren ahalmen ekonomikoa islatzen duten negoziok, egintzak edo egitateak dira.

##### **2. ATALA LEGEEN ETA ZERGEN ARTEKO HARREMANAK**

#### **17. artikulua.- Legeen eta zergen arteko harremanak.**

1. Zergak aplikatzean sortzen diren betebeharrak eta eginbeharrak, eskubideak eta ahalak osatzen dituzte legeen eta zergen arteko harremanak.

2. Legeen eta zergen arteko harreman horiek betebeharrak materialak eta formalak ekarri ahal dizkiete zergapekoei eta Administrazioari; halaber, haietako bat bete ezean, zerga-zehapenak ezarriko zaizkie.

3. Zerga-betebeharrak dira betebeharrak nagusiak, konturako ordainketak egin beharra, zergaren ondorioz norbanakoen artean ezarritakoak eta osagarriak.

a) Que, individualmente considerados o en su conjunto, sean notoriamente artificiosos o impropios para la consecución del resultado obtenido.

b) Que de su utilización no resulten efectos jurídicos o económicos relevantes, distintos del ahorro fiscal y de los efectos que se hubieran obtenido con los actos o negocios usuales o propios.

2. Para que la Administración tributaria pueda declarar la existencia del supuesto regulado en el apartado anterior se atenderá a lo previsto en el artículo 163 de esta Norma Foral.

3. En las liquidaciones que se realicen como resultado de lo dispuesto en este artículo se exigirá el tributo aplicando la norma que hubiera correspondido a los actos o negocios usuales o propios o eliminando las ventajas fiscales obtenidas, y se liquidarán intereses de demora, sin que proceda la imposición de sanciones.

#### **Artículo 15.- Simulación.**

1. En los actos o negocios en los que exista simulación, el hecho imponible gravado será el efectivamente realizado por las partes.

2. La existencia de simulación será declarada por la Administración tributaria en el correspondiente acto de liquidación, sin que dicha calificación produzca otros efectos que los exclusivamente tributarios.

3. En la regularización que proceda como consecuencia de la existencia de simulación se exigirán los intereses de demora y, en su caso, la sanción pertinente.

### **TÍTULO II LOS TRIBUTOS**

#### **CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES**

##### **SECCIÓN 1ª CONCEPTO, FINES Y CLASES DE LOS TRIBUTOS**

#### **Artículo 16.- Concepto, fines y clases de los tributos.**

1. Los tributos son ingresos públicos que consisten en prestaciones pecuniarias exigidas por una Administración pública como consecuencia de la realización del supuesto de hecho al que la Norma Foral vincula el deber de contribuir, con el fin primordial de obtener los ingresos necesarios para el sostenimiento de los gastos públicos.

Además, los tributos podrán servir como instrumentos de política económica general, para procurar la estabilidad y el progreso sociales y la mejor distribución de la renta.

2. Los tributos, cualquiera que sea su denominación, se clasifican en tasas, contribuciones especiales e impuestos.

a) Tasas son los tributos cuyo hecho imponible consiste en la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público, la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de derecho público que se refieran, afecten o beneficien de modo particular al obligado tributario, cuando los servicios o actividades no sean de solicitud o recepción voluntaria para los obligados tributarios o no se presten o realicen por el sector privado.

Se entenderá que los servicios se prestan o las actividades se realizan en régimen de derecho público cuando se lleven a cabo mediante cualquiera de las formas previstas en la legislación administrativa para la gestión del servicio público y su titularidad corresponda a un ente público.

b) Contribuciones especiales son los tributos cuyo hecho imponible consiste en la obtención por el obligado tributario de un beneficio o de un aumento de valor de sus bienes como consecuencia de la realización de obras públicas o del establecimiento o ampliación de servicios públicos.

c) Impuestos son los tributos exigidos sin contraprestación cuyo hecho imponible está constituido por negocios, actos o hechos que ponen de manifiesto la capacidad económica del contribuyente.

##### **SECCIÓN 2ª LA RELACIÓN JURÍDICO-TRIBUTARIA**

#### **Artículo 17.- La relación jurídico-tributaria.**

1. Se entiende por relación jurídico-tributaria el conjunto de obligaciones y deberes, derechos y potestades originados por la aplicación de los tributos.

2. De la relación jurídico-tributaria pueden derivarse obligaciones materiales y formales para el obligado tributario y para la Administración, así como la imposición de sanciones tributarias en caso de su incumplimiento.

3. Son obligaciones tributarias materiales las de carácter principal, las de realizar pagos a cuenta, las establecidas entre particulares resultantes del tributo y las accesorias.

4. Zerga-betebehar formalak dira zerga-arautegiak zergapekoei (zergaren zordunak izan zein ez) ezartzen dizkien diruzkoak ez bes-telakoak, hain zuzen ere zergen arloko jarduketan edo prozeduren garapenarekin lotuta daudenak.

5. Zerga-betebeharren elementuak ezin dira aldatu norbanako-egintza edo hitzarmenen bidez, hauek ez baitute Administrazioan eraginik izango. Hala ere, ondorio juridiko-privatuak izan ditzakete.

#### **18. artikulua.- Zerga-kreditua ezin erabili izatea.**

Zerga-kreditua ezin da erabili, foru arau batek besterik ezartzen ez badu.

### **3. ATALA ZERGA-BETEBEHARRAK**

#### **1. AZPIATALA ZERGA-BETEBEHAR NAGUSIA**

##### **19. artikulua.- Zerga-betebehar nagusia.**

Zerga-betebehar nagusiaren helburua zerga-kuota ordaintzea da.

##### **20. artikulua.- Zerga-egitatea.**

1. Zerga-egitatea zergari buruzko foru arauak finkatzen duen egitatea da; hori burutzeak zerga-betebehar nagusia sortzen du.

2. Zerga-egitatea foru arau bidez muga daiteke, hain zuzen ere zergapean ez dauden kasuak azalduta.

##### **21. artikulua.- Salbuespenak.**

Salbuespen izango dira zerga-egitatea egin arren foru arau bidez zerga-betebehar nagusitik kanpo (osorik edo zati batean) uzten diren kasuak.

##### **22. artikulua.- Sortzapena eta galdagarritasuna.**

1. Zergaren sortzapena zerga-egitatea gauzatzen eta zerga-betebehar nagusia sortzen denean gertatzen da, zerga bakoitzari buruzko foru arauak beste uneren batean gertatzen dela ezarri ezean.

Sortzapen egunak zehazten ditu zerga-betebeharra eratzeko kontuan hartu beharreko inguruabarrak, zerga bakoitzari buruzko foru arauak besterik ezarri ezean.

2. Zerga bakoitzaren arautegiak sartu beharreko kuota edo kopurua (edo zati bat) zerga sortzen den unean ez beste batean eskatuko dela ezarri ahal izango du.

#### **2. AZPIATALA KONTURAKO ORDAINKETAK EGIN BEHARRA**

##### **23. artikulua.- Konturako ordainketak egin beharra.**

1. Zerga-betebehar nagusiaren kontura ordainketak egin beharra hauxe da: zatikako ordainketak egin behar dituenak, atxikitzaileak edo konturako sarrerak egin behar dituenak Zerga Administrazioari kopuru jakin bat ordaintzea.

Zerga-betebehar hau autonomoa da zerga-betebehar nagusia-erekiko.

2. Zergadunak zerga-betebehar nagusitik kendu ahal izango du jasan dituen konturako ordainketen zenbatekoa, zerga bakoitzari buruzko foru arauak beste zenbateko bat ken dezakeela ezarri ezean.

#### **3. AZPIATALA ZERGEN ONDORIOZ NORBANAKOEN ARTEAN SORTZEN DIREN BETEBEHARRAK**

##### **24. artikulua.- Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.**

1. Norbanakoen artean zergen ondorioz sortzen diren betebeharrak zergapekoek zerga-prestazioak direla eta elkarri eskatu ahal dizkio-tenak dira.

2. Mota honetako betebeharrak dira, besteak beste, zerga-arautegian ezarritako jasanarazpenen, atxikipenen edo konturako sarre- ren ondorioz sortzen direnak.

#### **4. AZPIATALA ZERGA-BETEBEHAR OSAGARRIAK**

##### **25. artikulua.- Zerga-betebehar osagarriak.**

1. Atal honetan azaltzen direnak ez beste zerga-betebeharrak osagarriak dira. Zerga Administrazioari eman beharreko diru-prestazioak dira eta beste zerga-betebehar batekin lotuta eskatzen dira.

4. Son obligaciones tributarias formales las que, sin tener carácter pecuniario, son impuestas por la normativa tributaria a los obligados tributarios, deudores o no del tributo, y cuyo cumplimiento está relacionado con el desarrollo de actuaciones o procedimientos tributarios.

5. Los elementos de la obligación tributaria no podrán ser alterados por actos o convenios de los particulares, que no producirán efectos ante la Administración, sin perjuicio de sus consecuencias jurídico-privadas.

#### **Artículo 18.- Indisponibilidad del crédito tributario.**

El crédito tributario es indisponible salvo que por Norma Foral se establezca otra cosa.

### **SECCIÓN 3ª LAS OBLIGACIONES TRIBUTARIAS**

#### **SUBSECCIÓN 1ª LA OBLIGACIÓN TRIBUTARIA PRINCIPAL**

##### **Artículo 19.- Obligación tributaria principal.**

La obligación tributaria principal tiene por objeto el pago de la cuota tributaria.

##### **Artículo 20.- Hecho imponible.**

1. El hecho imponible es el presupuesto fijado por Norma Foral para configurar cada tributo y cuya realización origina el nacimiento de la obligación tributaria principal.

2. Por Norma Foral se podrá completar la delimitación del hecho imponible mediante la mención de supuestos de no sujeción.

##### **Artículo 21.- Exenciones.**

Son supuestos de exención aquéllos en que, a pesar de realizarse el hecho imponible, por Norma Foral se exime del cumplimiento total o parcial de la obligación tributaria principal.

##### **Artículo 22.- Devengo y exigibilidad.**

1. El devengo es el momento en el que se entiende realizado el hecho imponible y en el que se produce el nacimiento de la obligación tributaria principal, salvo que la Norma Foral de cada tributo fije un momento distinto de aquél.

La fecha del devengo determina las circunstancias relevantes para la configuración de la obligación tributaria, salvo que la Norma Foral de cada tributo disponga otra cosa.

2. La normativa de cada tributo podrá establecer la exigibilidad de la cuota o cantidad a ingresar, o de parte de la misma, en un momento distinto al del devengo del tributo.

#### **SUBSECCIÓN 2ª LA OBLIGACIÓN TRIBUTARIA DE REALIZAR PAGOS A CUENTA**

##### **Artículo 23.- Obligación tributaria de realizar pagos a cuenta.**

1. La obligación tributaria de realizar pagos a cuenta de la obligación tributaria principal consiste en satisfacer un importe a la Administración tributaria por el obligado a realizar pagos fraccionados, por el retenedor o por el obligado a realizar ingresos a cuenta.

Esta obligación tributaria tiene carácter autónomo respecto de la obligación tributaria principal.

2. El contribuyente podrá deducir de la obligación tributaria principal el importe de los pagos a cuenta soportados, salvo que la Norma Foral de cada tributo establezca la posibilidad de deducir una cantidad distinta a dicho importe.

#### **SUBSECCIÓN 3ª LAS OBLIGACIONES ENTRE PARTICULARES RESULTANTES DEL TRIBUTO**

##### **Artículo 24.- Obligaciones entre particulares resultantes del tributo.**

1. Son obligaciones entre particulares resultantes del tributo las que tienen por objeto una prestación de naturaleza tributaria exigible entre obligados tributarios.

2. Entre otras, son obligaciones de este tipo las que se generan como consecuencia de actos de repercusión, de retención o de ingreso a cuenta previstos en la normativa tributaria.

#### **SUBSECCIÓN 4ª LAS OBLIGACIONES TRIBUTARIAS ACCESORIAS**

##### **Artículo 25.- Obligaciones tributarias accesorias.**

1. Cuando no sea posible efectuar la notificación al obligado tributario o a su representante por causas no imputables a la Administración tributaria e intentada al menos dos veces en el domicilio fiscal, o en el designado por el interesado, si se trata de un procedi-

egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, espedientean jakinarazpen-ahalginen inguruabarrak adieraziko dira. Jasotzailea aipatu egoitzan edo tokian ezezaguna bada, ahalegin bat nahikoa izango da.

Hala gertatzen denean, zergapekoari edo beraren ordezkariari zitatzea egingo zaio bertaratuta jakinarazteko; horretarako iragarkiak argitaratuko dira Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki bat interesdun bakoitzeko.

Ezagutzen den azken egoitza Arabatik kanpo egonez gero, iragarkia ezagutzen den azken zerga-egoitzari dagokion udaletxean erri jarri ahal izango da. Ezagutzen den azken egoitza atzerrian badago, iragarkia dena delako herrialdearen konsulatuan edo enbaxadaren konsulatuan sartu ahal izango da.

Zerga Administrazioak baliabide informatikoen, elektronikoen eta telematikoen bidez jar ditzake iragarki hauek, zerga-arauegia ezarri denari lotuta.

2. Iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean, egiteko dauden jakinarazpenen zerrenda agertuko da eta ondokoak adieraziko dira: zergapekoa edo beraren ordezkaria; jakinarazpenak eragin dituen prozedura; izapidetzeko eskumena duen organoa; jasotzailea nora eta noiz joan behar den jakinarazpenak jasotzera. Interesduna iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik egutegiko hamabost egun pasatu baino lehen bertaratu beharko da. Aldi horretan bertaratzen ez bada, jakinarazpena epearen mugaegunaren biharamunean egintzat hartuko da lege-ondore guztietarako.

Iragarki berean hainbat zergapeko aipatu ahal izango dira, eta aurreko paragrafoan azaldutako betekizunak denei batera adierazi.

3. Zergapekoa edo beraren ordezkaria jakinarazpena jasotzera bertaratu ez eta ondorioz prozedura baten hasiera edo beraren izapidetako bat jakinarazitzat jotzen bada, prozeduraren hurrengo jarduketak eta eginbideak ere jakinarazitzat joko dira eta bere hartan mantenduko da prozeduran zehar noiznahi bertaratzeko eskubidea. Hala ere, prozeduran ematen diren likidazioak eta, egonez gero, enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakiak atal honetan ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko dira.

#### 4. ATALA ZERGAPEKOEN EGOITZAN SARTZEA

**109. artikulua.- Epailearen baimena zergapekoen egoitzan sartzeko.**

Zergak aplikatzeko prozeduretan, zergapeko baten egoitzan sartu behar bada edo hura miatu behar bada, Zerga Administrazioak zergapekoaren adostasuna edo epailearen baimena lortu behar du, egoitza Konstituzioaren babespean baitago.

#### 5. ATALA SALAKETA PUBLIKOA

**110. artikulua.- Salaketa publikoa.**

1. Salaketa publikoaren bidez Zerga Administrazioari jakinarazi ahal zaizkio zergen arloko arau-hauste izan daitezkeen egitateak edo egoerak, edo zergen aplikazioan eragina eduki dezaketenak. Salaketa publikoak ez du zerikusirik foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan ezarri bezala Zerga Administrazioari lagundu behar diren.

2. Honelako salaketa bat jasoz gero, organo eskudunari bidaliko zaio, bidezko jarduketak egin ditzan. Organo horrek, salaketa oinarri gabekotzat jotzen badu edo uste badu salatutako egitateak edo pertsonak ez direla identifikatu behar bezala, salaketa artxibatzea erabaki ahal izango du.

Egotzitako egitateak benetakoak direla pentsatzeko behar adina zantzu egon arren Zerga Administrazioak haien berri ez badu, bidezko jarduketekin ahal izango zaizkie. Hala gertatzen denean, salaketa ez da izango administrazio-espedientearen osagaia.

3. Salaketaren ondorioz abiatzen diren administrazio-jarduketetan salatzailea ez da interesduntzat hartuko, eta ez zaio emango haien emaitzen berri. Halaber, salatzailea ez da egongo legitimatuta jarduketan emaitzen inguruan errekurtsorik edo erreklamaziorik jartzeko.

miento iniciado a solicitud del mismo, se harán constar en el expediente las circunstancias de los intentos de notificación. Será suficiente un solo intento cuando el destinatario conste como desconocido en dicho domicilio o lugar.

En este supuesto, se citará al obligado o a su representante para ser notificados por comparecencia por medio de anuncios que se publicarán, por una sola vez para cada interesado, en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En los supuestos en los que el último domicilio conocido estuviera fuera de Álava, estos anuncios podrán exponerse asimismo en el Ayuntamiento correspondiente al último domicilio fiscal conocido. En el caso de que el último domicilio conocido radicara en el extranjero, el anuncio se podrá exponer en el Consulado o sección consular de la Embajada correspondiente.

La Administración tributaria podrá llevar a cabo los anteriores anuncios mediante el empleo y utilización de medios informáticos, electrónicos y telemáticos en los términos que establezca la normativa tributaria.

2. En la publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava constará la relación de notificaciones pendientes con indicación del obligado tributario o su representante, el procedimiento que las motiva, el órgano competente para su tramitación y el lugar y plazo en que el destinatario de las mismas deberá comparecer para ser notificado. En todo caso, la comparecencia deberá producirse en el plazo de quince días naturales, contados desde el siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico. Transcurrido dicho plazo sin comparecer, la notificación se entenderá producida a todos los efectos legales el día siguiente al del vencimiento del plazo señalado.

En un mismo anuncio podrán referenciarse varios obligados tributarios, pudiendo hacerse comunes a todos ellos los requisitos enunciados en el párrafo anterior.

3. Cuando el inicio de un procedimiento o cualquiera de sus trámites se entiendan notificados por no haber comparecido el obligado tributario o su representante, se le tendrá por notificado de las sucesivas actuaciones y diligencias de dicho procedimiento, y se mantendrá el derecho que le asiste a comparecer en cualquier momento del mismo. No obstante, las liquidaciones que se dicten en el procedimiento y, en su caso, los acuerdos de enajenación de los bienes embargados deberán ser notificados con arreglo a lo establecido en esta Sección.

#### SECCIÓN 4ª ENTRADA EN EL DOMICILIO DE LOS OBLIGADOS TRIBUTARIOS

**Artículo 109.- Autorización judicial para la entrada en el domicilio de los obligados tributarios.**

Quando en los procedimientos de aplicación de los tributos sea necesario entrar en el domicilio constitucionalmente protegido de un obligado tributario o efectuar registros en el mismo, la Administración tributaria deberá obtener el consentimiento de aquél o la oportuna autorización judicial.

#### SECCIÓN 5ª DENUNCIA PÚBLICA

**Artículo 110.- Denuncia pública.**

1. Mediante la denuncia pública se podrán poner en conocimiento de la Administración tributaria hechos o situaciones que puedan ser constitutivos de infracciones tributarias o tener trascendencia para la aplicación de los tributos. La denuncia pública es independiente del deber de colaborar con la Administración tributaria regulado en los artículos 90 y 91 de esta Norma Foral.

2. Recibida una denuncia, se remitirá al órgano competente para realizar las actuaciones que pudieran proceder. Este órgano podrá acordar el archivo de la denuncia cuando se considere infundada o cuando no se concreten o identifiquen suficientemente los hechos o las personas denunciadas.

Se podrán iniciar las actuaciones que procedan si existen indicios suficientes de veracidad en los hechos imputados y éstos son desconocidos para la Administración tributaria. En este caso, la denuncia no formará parte del expediente administrativo.

3. No se considerará al denunciante interesado en las actuaciones administrativas que se inicien como consecuencia de la denuncia ni se le informará del resultado de las mismas. Tampoco estará legitimado para la interposición de recursos o reclamaciones en relación con los resultados de dichas actuaciones.

6. ATALA  
EGIAZTATZEKO ETA IKERTZEKO AHALAK  
ETA EGINKIZUNAK

**111. artikulua.- Egiaztatzeko eta ikertzeko ahalak eta eginkizunak.**

1. Zerga Administrazioak behar diren egitate, egintza eta negozio juridiko guztiak egiaztatu eta ikertu ahal ditu, bai eta halekin lotutako inguruabar, datu eta agiri guztiak ere, zerga-betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko.

2. Egiaztatzeko eta ikertzeko eginkizunak burutzean, Zerga Administrazioak zergapekoak egindako egitate, egintza eta negozio juridikoak kalifikatuko ditu, hark aurretiaz egindako kalifikazioa gorabehera.

3. Zerga-onura batzuk aplikatu ahal izateko baldintza edo bete-kizun jakin batzuk ezarri badira eta hauek onurak emateko edo aintzatesteko egintzak eman diren prozeduran egiaztatu ez badira, emate eta aintzatespen egintzok behin-behinekoak izango dira. Zerga Administrazioak geroago, zergak aplikatzeko prozedura batean, baldintza edo betekizunak betetzen direnez egiaztatu ahal izango du eta, beharrezkoa bada, zergadunaren zerga-egoera erregularizatu, eta horretarako ez du edukiko behin-behineko egintzak foru arau honetako V. tituluaren xedatutakoaren arabera berrikusi beharrik.

7. ATALA  
IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA

**112. artikulua.- Iruzuraren aurkako plana.**

Urtero, Zerga Administrazioak iruzurraren aurkako plana prestatuko du; plana isilpean edukiko da baina, hala ere, beraren irizpide orokorrak aditzera emango dira.

III. KAPITULUA  
ZERGAK KUDEATZEKO JARDUKETAK  
ETA PROZEDURAK

1. ATALA  
XEDAPEN OROKORRAK

**113. artikulua.- Zergen kudeaketa.**

1. Zergen kudeaketa esaten zaio ikuskapen eta bilketa eginkizunetan sartzen ez diren zergak aplikatzeko administrazio-jarduketan multzoari.

2. Hain zuzen ere, zergen kudeaketan ondoko administrazio-eginkizun hauek daude:

a) Autolikidazioak, aitorpenak eta zerga-ondoreak dituzten gainerako agiri guztiak jasotzea eta izapidetzea.

b) Zerga-arauegian ezarritako itzulketak egiaztatzea eta egitea.

c) Zerga-onurak aintzatestea eta bidezkoak diren egiaztatzea, kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegiari lotuta.

d) Fakturatu beharra kontrolatu eta haiek errazteko erabakiak ematea, fakturek zerga-ondoreak dituztenean.

e) Zergen aitorpenak edo autolikidazioak eta beste betebeharrak formal batzuk betetzen diren kontrolatzea (are horretarako errekerimenduak ematea ere).

f) Aurkezten diren autolikidazioak eta aitorpenak berrikustea.

g) Balioak egiaztatzeko jarduketak egitea.

h) Balioen egiaztatze mugaturako jarduketak egitea.

i) Agiriak edo informazioa aurkezteko errekerimenduak ematea.

j) Behin-behineko likidazioak egitea.

k) Zerga-ziurtagiriak ematea.

l) Identifikazio fiskaleko zenbakia ematea eta, behar denean, ezetzatzea, berariazko arautegian ezarritakoaren arabera.

m) Zerga-zentsuak egitea eta mantentzea.

n) Zergen inguruko informazioa eta laguntza ematea.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatutako jarduketak eta eginkizunak foru arau honetan eta garatzen den arautegian ezarritakoaren arabera egingo dira.

**114. artikulua.- Zergen kudeaketa hasteko moduak.**

Zerga-arauegian ezarritakoaren arabera, zergen kudeaketa honela hasiko da:

SECCIÓN 6ª  
POTESTADES Y FUNCIONES DE  
COMPROBACIÓN E INVESTIGACIÓN

**Artículo 111.- Potestades y funciones de comprobación e investigación.**

1. La Administración tributaria podrá comprobar e investigar cuantos hechos, actos o negocios jurídicos, así como cualesquiera circunstancias, datos o documentos con ellos relacionados, que pudieran resultar relevantes para asegurar el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

2. En el desarrollo de las funciones de comprobación o investigación, la Administración tributaria calificará los hechos, actos o negocios realizados por el obligado tributario con independencia de la previa calificación que éste hubiera dado a los mismos.

3. Los actos de concesión o reconocimiento de beneficios fiscales que estén condicionados al cumplimiento de ciertas condiciones futuras o a la efectiva concurrencia de determinados requisitos no comprobados en el procedimiento en que se dictaron, tendrán carácter provisional. La Administración tributaria podrá comprobar en un posterior procedimiento de aplicación de los tributos la concurrencia de tales condiciones o requisitos y, en su caso, regularizar la situación tributaria del obligado sin necesidad de proceder a la previa revisión de dichos actos provisionales conforme a lo dispuesto en el Título V de esta Norma Foral.

SECCIÓN 7ª  
LUCHA CONTRA EL FRAUDE

**Artículo 112.- Plan de lucha contra el fraude.**

La Administración tributaria elaborará anualmente un Plan de lucha contra el fraude que tendrá carácter reservado, aunque ello no impedirá que se hagan públicos los criterios generales que lo informen.

CAPÍTULO III  
ACTUACIONES Y PROCEDIMIENTOS  
DE GESTIÓN TRIBUTARIA

SECCIÓN 1ª  
DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 113.- La gestión tributaria.**

1. La gestión tributaria consiste en el ejercicio de las funciones administrativas dirigidas a la realización de actuaciones de aplicación de los tributos no integradas en las funciones de inspección y recaudación.

2. En particular, la gestión tributaria consiste en el ejercicio de las siguientes funciones administrativas:

a) La recepción y tramitación de autoliquidaciones, declaraciones y demás documentos con trascendencia tributaria.

b) La comprobación y realización de las devoluciones previstas en la normativa tributaria.

c) El reconocimiento y comprobación de la procedencia de los beneficios fiscales de acuerdo con la normativa reguladora del correspondiente procedimiento.

d) El control y los acuerdos de simplificación relativos a la obligación de facturar, en cuanto tengan trascendencia tributaria.

e) La realización de actuaciones de control del cumplimiento de la obligación de presentar declaraciones o autoliquidaciones tributarias y de otras obligaciones formales, incluida la emisión de requerimientos encaminados a tal fin.

f) La revisión de las autoliquidaciones y declaraciones presentadas.

g) La realización de actuaciones de comprobación de valores.

h) La realización de actuaciones de comprobación limitada.

i) La emisión de requerimientos de documentación o información.

j) La práctica de liquidaciones provisionales.

k) La emisión de certificados tributarios.

l) La expedición y, en su caso, revocación del número de identificación fiscal, en los términos establecidos en su normativa específica.

m) La elaboración y mantenimiento de los censos tributarios.

n) La información y asistencia tributaria.

3. Las actuaciones y el ejercicio de las funciones a las que se refieren los apartados anteriores se realizarán de acuerdo con lo establecido en esta Norma Foral y en su normativa de desarrollo.

**Artículo 114.- Formas de iniciación de la gestión tributaria.**

De acuerdo con lo previsto en la normativa tributaria, la gestión tributaria se iniciará:



a) Interesdunak eskatuta, autolikidazioaren edo aitortenaren bidez, edo zergadunak eskaera aurkeztuta, foru arau honetako 94. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Zerga Administrazioak ofizioz.

#### **115. artikulua.- Zerga-aitorpena.**

1. Zerga-aitorpenentzat hartuko dira zergak aplikatzean eragina izan dezakeen egitateren bat aintzatesteko edo agertzeko Zerga Administrazioari aurkezten zaizkion agiri guztiak.

Aitorpena aurkezteak ez dakar berekin zergapekoak zerga-bebeharra bidezkoa dela onartu edo aintzatesi beharra.

2. Arau bidez ezarri ahal izango da zein kasutan onar daitekeen aitorpena ahoz edo ezagutza adierazteko bestelako egintza baten bidez egitea.

3. Oro har, aitorpena aurkeztuta baliarazten edo eskatzen diren edo uko egiten zaien aukerak ezin zuzendu izango dira geroago, aitorten-aldian izan ezean.

Hala ere, zerga bakoitzari buruzko arautegian aukera horiek zuzentzeko beste une edo aldi bat ezarri ahal izango da, bai eta horretarako baldintzak ere.

4. Zerga Administrazioak zergapekoek aurkeztutako aitortenak berrikusi eta egiaztatu ahal izango ditu eta, behar denean, likidazioak egingo ditu.

#### **116. artikulua.- Autolikidazioak.**

1. Autolikidazioak aitortenak dira; beraien bidez zergapekoek, Administrazioari zerga likidatzeko behar diren datuak eta bestelako datu informatibo batzuk emateaz gainera, euren kabuz egiten dituzte zerga-zorra zehazteko eta zenbatekoa sartzeko edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazteko behar diren kalifikazio-eragiketa eta kalkulu guztiak.

Halaber, autolikidazio izango dira berariazko arautegian ezarritako baldintzak betetzen dituzten zergapekoek, Zerga Administrazioak lagunduta, aurreko paragrafoan aipatutako jarduketak egiteko aurkezten dituzten aitortenak.

2. Zerga bakoitza arautzen duten xedapenetan hala ezartzen denean, Zerga Administrazioak autolikidaziorako proposamena bidali ahal izango die autolikidazioa nahitaez aurkeztu behar duten zergadunei.

Zergapekoaren ustez, proposatu zaien autolikidazioak dagokion zergarekiko bere egoera islatzen duenean, autolikidazio hori sinatu edo berretsi ahal izango du; bestela, arau bidez ezarritako baldintzak aintzatzat hartuta aldatu ahal izango du. Kasu horretan, kasuan kasuko zergaren autolikidaziotzat hartuko da.

Zerga Administrazioak bidalitako autolikidazio-proposamena sinatu edo berresten duen zergadunari ezin izango zaio zehapenik ezarri proposamenean jasotako datuen zioz.

Zergadunak ez badu onartzen bidali zaien autolikidazio-proposamena, administrazio-jarduketa ez egintzat joko da eta zergadunak zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du, betebeharrak hori edukiz gero.

3. Administrazioak zergapekoek aurkeztutako autolikidazioak egiaztatu ahal izango ditu eta, behar denean, likidazioak egingo ditu.

4. Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin die, nolabait bere bidezko interesari, zuzentzeko eskatu ahal izango du, arau bidez ezarritako prozedurari lotuta.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz zergaren arautegian arabera zergapekoari dirua itzuli behar bazaio eta sei hilabete igarota ordainketarik egin ez bada eta horren kausa Zerga Administrazioari egotzi ahal bazaio, honek itzuli beharreko kopuruaren berandutza-interesak (foru arau honetako 26. artikuluan aipatuak) ordaindu beharko ditu. Zergadunak ez du edukiko interesak ordaintzeko eskatu beharrik.

Ondore horietarako, sei hilabeteko epea autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen edo, dagoeneko amaituta badago, autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkezten denetik.

a) A instancia de parte, mediante la presentación de una autoliquidación o declaración, o por una solicitud del obligado tributario, de acuerdo con lo previsto en el artículo 94 de esta Norma Foral.

b) De oficio por la Administración tributaria.

#### **Artículo 115.- Declaración tributaria.**

1. Se considerará declaración tributaria todo documento presentado ante la Administración tributaria donde se reconozca o manifieste la realización de cualquier hecho relevante para la aplicación de los tributos.

La presentación de una declaración no implica aceptación o reconocimiento por el obligado tributario de la procedencia de la obligación tributaria.

2. Reglamentariamente podrán determinarse los supuestos en que sea admisible la declaración verbal o la realizada mediante cualquier otro acto de manifestación de conocimiento.

3. Con carácter general, las opciones que según la normativa tributaria se deban ejercitar, solicitar o renunciar con la presentación de una declaración no podrán rectificarse con posterioridad a ese momento, salvo que la rectificación se presente en el período de declaración.

No obstante, la normativa reguladora de cada tributo podrá establecer otro momento o período diferente de rectificación, en las condiciones que se especifiquen en la misma.

4. Las declaraciones presentadas por los obligados tributarios podrán ser objeto de revisión y comprobación por la Administración tributaria, que practicará, en su caso, la liquidación que proceda.

#### **Artículo 116.- Autoliquidaciones.**

1. Las autoliquidaciones son declaraciones en las que los obligados tributarios, además de comunicar a la Administración los datos necesarios para la liquidación del tributo y otros de contenido informativo, realizan por sí mismos las operaciones de calificación y cuantificación necesarias para determinar e ingresar el importe de la deuda tributaria o, en su caso, determinar la cantidad que resulte a devolver o a compensar.

Asimismo tendrán la naturaleza de autoliquidación las declaraciones en las que los obligados tributarios que cumplan los requisitos previstos en la normativa reguladora correspondiente, realicen las actuaciones señaladas en el párrafo anterior contando con la asistencia de la Administración tributaria.

2. Cuando las disposiciones reguladoras de cada tributo así lo establezcan, la Administración tributaria podrá remitir a los contribuyentes obligados a presentarla, una propuesta de autoliquidación.

Cuando el contribuyente considere que la propuesta de autoliquidación remitida refleja su situación tributaria a efectos del tributo correspondiente, podrá suscribirla, confirmarla o modificarla, en las condiciones que se establezcan reglamentariamente. En este supuesto tendrá la consideración de autoliquidación por el tributo correspondiente.

El contribuyente que haya suscrito o confirmado la propuesta de autoliquidación remitida por la Administración tributaria, no podrá ser objeto de sanción respecto de los datos incluidos en la propuesta.

Si el contribuyente no presta su conformidad con la propuesta de autoliquidación remitida, se tendrá por no efectuada la actuación administrativa, quedando el contribuyente obligado a presentar, en el supuesto de que tenga esta obligación, la autoliquidación del Impuesto correspondiente.

3. Las autoliquidaciones presentadas por los obligados tributarios podrán ser objeto de verificación y comprobación por la Administración, que practicará, en su caso, la liquidación que proceda.

4. Cuando un obligado tributario considere que una autoliquidación ha perjudicado de cualquier modo sus intereses legítimos, podrá instar la rectificación de dicha autoliquidación de acuerdo con el procedimiento que se regule reglamentariamente.

Cuando la rectificación de una autoliquidación origine una devolución derivada de la normativa del tributo y hubieran transcurrido seis meses sin que se hubiera ordenado el pago por causa imputable a la Administración tributaria, ésta abonará el interés de demora del artículo 26 de esta Norma Foral sobre el importe de la devolución que proceda, sin necesidad de que el obligado lo solicite.

A estos efectos, el plazo de seis meses comenzará a contarse a partir de la finalización del plazo para la presentación de la autoliquidación o, si éste hubiese concluido, a partir de la presentación de la solicitud de rectificación.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz bidegabe sartutako kopuru bat itzuli behar bada, Zerga Administrazioak haren berandutza-interesak ordainduko ditu, foru arau honetako 32. artikuluan adierazitakoari lotuta.

#### **117. artikulua.- Aitorpen eta autolikidazio osagarriak edo ordezkioak.**

1. Zergapekoek autolikidazio osagarriak, edo aitorpen osagarriak edo ordezkioak, aurkeztu ahal izango dituzte berariaz ezarritako epean, edo epea mugaeguneratutakoan, baldin eta Administrazioak zerga-zorra zehazteko duen eskubidea preskribituta ez badago. Azken kasukoak epez kanpokoak izango dira.

2. Autolikidazio osagarrien helburua aurretik aurkeztutako bat osatzea edo aldatzea da; autolikidazio hauek sartu beharreko diru kopurua aurreko autolikidaziokoa baino handiagoa edo itzuli edo konpentsatu beharrekoa baino txikiagoa denean aurkeztu ahal izango dira. Gainerako kasuetan, foru arau honetako 116. artikuluko 4. idatzatian xedatutakoa aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, eta berariaz besterik ezarri ezean, salbuespen, kenkari edo zerga-pizgarri bat aplikatu ondoren aplikatzeko eskubidea galtzen bada, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, zergadunak ez-betetzea gertatu den zergaldiko autolikidazioan aurreko zergaldietan ez-betetzeak izan duen eraginaren ondoriozko salbuespenaren, kenkariaren edo zerga-pizgarriaren kuota edo kopurua sartu beharko du, bai eta haren berandutza-interesak ere.

3. Aitorpen osagarrien edo ordezkio aitorpenen helburua aurreko aitorpen bat osatzea edo ordezte da; aitorpena osagarria edo ordezkioa den zehaztu behar da.

### **2. ATALA ZERGA KUDEATZEKO PROZEDURAK**

#### **118. artikulua.- Zergak kudeatzeko prozedurak.**

1. Hona hemen, besteak beste, zergak kudeatzeko prozedurak:

- a) Autolikidazioaren bidez hasten den prozedura.
- b) Aitorpenaren bidez hasten den prozedura.
- c) Zerga-zorra likidatzeko ofizioz hasten den prozedura.
- d) Balioak egiaztatze prozedura.
- e) Egiaztapen mugatuaren prozedura.

2. Arau bidez zergak kudeatzeko beste prozedura batzuk arau ahal izango dira: nolahi ere, prozedura horiei titulu honetako II. kapituluaren ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

### **1. AZPIATALA AUTOLIKIDAZIOAREN BIDEZ HASTEN DEN PROZEDURA**

#### **119. artikulua.- Prozeduraren hasiera.**

Zergari buruzko arautegian ezarritako gero, beraren kudeaketa zergadunak autolikidazioa aurkeztuta hasiko da; bertan zergadunak zerga-zorraren zenbatekoa edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehaztu behar du.

#### **120. artikulua.- Autolikidazioak aurkeztearen ondoriozko itzulketak.**

1. Autolikidazioaren emaitza diru kopuru bat itzuli beharra bada, Zerga Administrazioak itzuli beharko du.

2. Foru arau honetako 31. artikuluan aipatutako itzulketarako epea autolikidazioa aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen. Hala ere, autolikidazioa epez kanpo aurkezten bada, aurkeztu den egunetik hasiko da zenbatzen.

#### **121. artikulua.- Autolikidazioaren bidez hasitako prozeduraren amaiera.**

1. Foru arau honetako 65. artikuluan ezartzen den preskripzio-eparen barruan, autolikidazioaren bidez hasten den prozedura ikuskapen-prozeduraren bat (egiaztapen mugatuarena ez beste bat) hasten denean amaitu ahal izango da.

2. Foru arau honetako 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri bidezkoa den itzulketaren gaineko berandutza-interesak ordaindu beharra mantendu egingo da.

Cuando la rectificación de una autoliquidación origine la devolución de un ingreso indebido, la Administración tributaria abonará el interés de demora en los términos señalados en el apartado 2 del artículo 32 de esta Norma Foral.

#### **Artículo 117.- Declaraciones y autoliquidaciones complementarias o sustitutivas.**

1. Los obligados tributarios podrán presentar autoliquidaciones complementarias, o declaraciones complementarias o sustitutivas, dentro del plazo establecido para su presentación o con posterioridad a la finalización de dicho plazo, siempre que no haya prescrito el derecho de la Administración para determinar la deuda tributaria. En este último caso tendrán el carácter de extemporáneas.

2. Las autoliquidaciones complementarias tendrán como finalidad completar o modificar las presentadas con anterioridad y se podrán presentar cuando de ellas resulte un importe a ingresar superior al de la autoliquidación anterior o una cantidad a devolver o a compensar inferior a la anteriormente autoliquidada. En los demás casos, se estará a lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 116 de esta Norma Foral.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior y salvo que específicamente se establezca otra cosa, cuando con posterioridad a la aplicación de una exención, deducción o incentivo fiscal se produzca la pérdida del derecho a su aplicación por incumplimiento de los requisitos a que estuviese condicionado, el obligado tributario deberá incluir, en la autoliquidación correspondiente al período impositivo en que se hubiera producido el incumplimiento, la cuota o cantidad derivada de la exención, deducción o incentivo fiscal afectado por dicho incumplimiento en los períodos impositivos anteriores, junto con los intereses de demora.

3. Las declaraciones complementarias o sustitutivas tendrán la finalidad de completar o reemplazar las presentadas con anterioridad, debiéndose hacer constar si se trata de una u otra modalidad.

### **SECCIÓN 2ª PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN TRIBUTARIA**

#### **Artículo 118.- Procedimientos de gestión tributaria.**

1. Son procedimientos de gestión tributaria, entre otros, los siguientes:

- a) El procedimiento iniciado mediante autoliquidación.
- b) El procedimiento iniciado mediante declaración.
- c) El procedimiento de liquidación de la deuda tributaria iniciado de oficio.
- d) El procedimiento de comprobación de valores.
- e) El procedimiento de comprobación limitada.

2. Reglamentariamente se podrán regular otros procedimientos de gestión tributaria a los que serán de aplicación, en todo caso, las normas establecidas en el Capítulo II de este Título.

### **SUBSECCIÓN 1ª PROCEDIMIENTO INICIADO MEDIANTE AUTOLIQUIDACIÓN**

#### **Artículo 119.- Iniciación del procedimiento.**

Cuando la normativa reguladora del tributo así lo establezca, la gestión del mismo se iniciará mediante la presentación de una autoliquidación por el obligado tributario en la que se determine, en su caso, el importe de la deuda tributaria o la cantidad que resulte a devolver o a compensar.

#### **Artículo 120.- Devoluciones derivadas de la presentación de autoliquidaciones.**

1. Cuando de la presentación de una autoliquidación resulte cantidad a devolver, la Administración tributaria deberá efectuar la devolución que proceda.

2. El plazo establecido para efectuar la devolución al que se refiere el artículo 31 de esta Norma Foral comenzará a contarse desde la finalización del plazo previsto para la presentación de la autoliquidación. No obstante, si ésta se produce fuera de plazo, se contará a partir de la presentación de la autoliquidación extemporánea.

#### **Artículo 121.- Terminación del procedimiento iniciado mediante autoliquidación.**

1. Dentro del plazo de prescripción establecido en el artículo 65 de esta Norma Foral, el procedimiento iniciado mediante autoliquidación podrá terminar por el inicio de uno de los procedimientos de inspección, con excepción del de comprobación restringida.

2. Se mantendrá la obligación de satisfacer el interés de demora sobre la devolución que, en su caso, se pueda practicar, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 31 de esta Norma Foral.

2. AZPIATALA  
AITORPENAREN BIDEZ HASTEN DEN PROZEDURA

**122. artikulua.- Zerga kudeatzeko prozedura aitorpenaren bidez hastea.**

Zergari buruzko arautegian ezarritako gero, beraren kudeaketa zergapekoak aitorpena aurkeztuta hasiko da; bertan zergapekoak zerga-egitatea gertatu dela jakinarazi behar dio Zerga Administrazioari eta zerga-betebeharraren zenbatekoa zehazteko behar dituen datu guztiak eman behar dizkio.

**123. artikulua.- Aitorpenaren bidez hasten den prozedura izapidetzea.**

Zerga Administrazioak aurreko artikuluan aipatutako likidazioa jakinarazi beharko du, foru arau honetako 65. artikuluan ezartzen den preskripzio-eparean barruan eta, bidezkoa izanez gero, foru arau honetako 125. eta 126. artikuluetan xedatutako berrikuspen, kalifikazio eta zenbatze jarduketak egin ondoren.

**124. artikulua.- Aitorpenaren bidez hasten den prozedura amaitzea.**

Foru arau honetako 65. artikuluan ezartzen den preskripzio-eparean barruan, zergapekoak aurkeztutako aitorpenaren bidez hasi den prozedura ikuskapen-prozeduraren bat (egiaztapen mugatuarena ez beste bat) hasten denean amaituko da.

3. AZPIATALA  
AUTOLIKIDAZIOAREN BIDEZ ETA AITORPENAREN BIDEZ  
HASTEN DIREN PROZEDUREI BURUZKO  
XEDAPEN OROKORRAK

**125. artikulua.- Autolikidazioen eta aitorpenen berrikuspena.**

1. Zerga Administrazioak aurkeztzen zaizkion autolikidazioak eta aitorpenak eta haiei atxikitako agiriak berrikusi ahal izango ditu zerga-arautegia zuzen aplikatu den eta adierazitako datuak berak dituenekin bat datozen egiaztatzeko.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutakoa egiteko, Administrazioak autolikidazioetan edo aitorpenetan adierazitako datuak argitzeko edo frogatzeko eska diezaike zergapekoei, eta zerga zuzen aplikatzeko behar diren agiriak aurkezteko. Halaber, balioak egiaztatzeko beharrezkoak diren jarduketak ere burutu ahal izango ditu.

**126. artikulua.- Behin-behineko likidazioak.**

1. Zerga Administrazioak inolako izapiderik gabe itzuli ahal izango ditu zergapekoak foru arau honetako 120. artikuluan adierazitakoaren arabera eskatutako kopuruak, bai eta foru arau honetako 122. artikuluan adierazitako likidazioa egin ere.

2. Halaber, Administrazioak ondoko kasuetan egin ahal izango du behin-behineko likidazioa aurretiaz zergapekoari likidazio-proposamena jakinarazi gabe:

a) Zergapekoaren aitorpenak edo autolikidazioak akats formalen bat duenean edo bertako kalkulu aritmetikoren bat oker dagoenean.

b) Aitorrutako datuak ez datozenean bat zergapekoak aurkeztutako beste aitorpen batzuetan adierazitakoekin edo Zerga Administrazioak dituenekin, hau da, gainontzekoei, foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan ezarritako informatu beharra betetzeko, orokorrean eskatutako aitorpenetan adierazitakoekin.

c) Foru arau honetako 128. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako kasuetan.

d) Aitorpenean edo autolikidazioan edo aurkeztutako frogagiritan zerga-arautegia gaizki aplikatu dela antzematen denean.

e) Foru arau honetako 154. artikuluan aipatutako egiaztapen murriztuaren prozeduraren ondorioa denean.

Hala ere, aurkeztutako autolikidazioan edo aitorpenean adierazitako datuak eta Administrazioak dituenak, aurreko b) letran aipatutakoak ez beste batzuk, bat ez badatoz edo egindako behin-behineko likidazioa ez badator bat egiaztapen murriztuaren prozeduran emandako txostenaren ondorioekin, zergapekoari likidazio-proposamena jakinarazi beharko zaio behin-behineko likidazioa egin aurretik, eskubidez komeni zaiona alega dezan.

SUBSECCIÓN 2ª  
PROCEDIMIENTO INICIADO MEDIANTE DECLARACIÓN

**Artículo 122.- Iniciación del procedimiento de gestión tributaria mediante declaración.**

Cuando la normativa del tributo así lo establezca, la gestión del mismo se iniciará mediante la presentación de una declaración por el obligado tributario en la que manifieste la realización del hecho imponible y comunique los datos necesarios para que la Administración cuantifique la obligación tributaria mediante la práctica de una liquidación provisional.

**Artículo 123.- Tramitación del procedimiento iniciado mediante declaración.**

La Administración tributaria deberá notificar la liquidación a la que se hace referencia en el artículo anterior dentro del plazo de prescripción establecido en el artículo 65 de esta Norma Foral, una vez realizadas, en su caso, las actuaciones de revisión, calificación y cuantificación oportunas conforme disponen los artículos 125 y 126 de esta Norma Foral.

**Artículo 124.- Terminación del procedimiento iniciado mediante declaración.**

Dentro del plazo de prescripción establecido en el artículo 65 de esta Norma Foral, el procedimiento iniciado mediante declaración presentada por el obligado tributario podrá terminar por el inicio de uno de los procedimientos de inspección, con excepción del de comprobación restringida.

SUBSECCIÓN 3ª  
DISPOSICIONES COMUNES A LOS PROCEDIMIENTOS  
INICIADOS MEDIANTE AUTOLIQÜIDACIÓN  
O DECLARACIÓN

**Artículo 125.- Revisión de autoliquidaciones y declaraciones.**

1. La Administración tributaria podrá revisar las autoliquidaciones o declaraciones presentadas así como la documentación que se acompañe a las mismas con el objeto de comprobar si ha sido aplicada debidamente la normativa tributaria y si los datos consignados coinciden con los que obren en su poder.

2. A los efectos señalados en el apartado anterior, la Administración podrá requerir al obligado tributario la aclaración o justificación de los datos consignados en las autoliquidaciones o declaraciones presentadas, así como la aportación de aquellos documentos cuya presentación fuera necesaria para la correcta aplicación del tributo. Asimismo podrá realizar actuaciones de comprobación de valores.

**Artículo 126.- Práctica de liquidaciones provisionales.**

1. La Administración tributaria podrá proceder, sin más trámite, a la devolución de las mismas cantidades solicitadas por los obligados tributarios a las que se refiere el artículo 120 de esta Norma Foral y para practicar la liquidación a que se refiere el artículo 122 de esta Norma Foral.

2. Asimismo, la Administración, sin necesidad de notificar previamente al obligado tributario propuesta de liquidación, podrá practicar liquidación provisional en los siguientes supuestos:

a) Cuando la declaración o autoliquidación del obligado tributario adolezca de defectos formales o incurra en errores aritméticos.

b) Cuando los datos declarados no coincidan con los contenidos en otras declaraciones presentadas por el mismo obligado tributario o con los que obren en poder de la Administración tributaria siempre que hubieren sido aportados por terceros en declaraciones exigidas con carácter general en cumplimiento de la obligación de suministro de información recogida en los artículos 90 y 91 de esta Norma Foral.

c) Cuando se trate de los supuestos a que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 128 de esta Norma Foral.

d) Cuando se aprecie una aplicación indebida de la normativa que resulte patente de la propia declaración o autoliquidación presentada o de los justificantes aportados.

e) Cuando sea consecuencia del procedimiento de comprobación restringida a que se refiere el artículo 154 de esta Norma Foral.

No obstante en los casos en que se aprecie discrepancia entre los datos que consten en las autoliquidaciones o declaraciones presentadas y los que obren en poder de la Administración distintos a los que se refiere la letra b) anterior, o cuando la liquidación provisional practicada no se ajuste a las conclusiones del informe emitido en el procedimiento de comprobación restringida, se deberá notificar al obligado tributario, con carácter previo a la práctica de la liquidación provisional, propuesta de liquidación para que alegue lo que con venga a su derecho.

f) Foru arau honetako 27. artikuluan ezarritako errekarjueen eta, hala denean, bidezko berandutza-interesen ziozko behin-behineko likidazioetan.

3. Zergapekoak adierazten badu ez dagoela ados Administrazioak dituen datuekin, foru arau honetako 104. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

4. Zerga Administrazioak arrazoitu egin behar ditu jakinarazten dituen proposamenak eta egiten dituen behin-behineko likidazioak; hain zuzen ere, kontuan izan dituen inguruabarrak azaldu behar ditu, orokorrean.

5. Foru arau honetako 65. artikuluan aipatutako preskripzio-epereen barruan, Zerga Administrazioak, berrikusitako autoliquidazio edo aitortpen batean artikuluko honetako 2. idatz-zatian aipatutako inguruabaretako bat gertatu dela edo aurreko behin-behineko likidazio batean zerbait ez dela hartu kontuan ohartzuz gero, behin-behineko likidazio gehiago egin ahal izango du.

6. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa ez da inolaz ere aplikatuko autoliquidazioaren edo aitortpenaren behin betiko likidazioa egin bada foru arau honetako 97. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

Halaber, egiaztapen mugatuaren prozedura aplikatu zaien zerga-betebeharren edo haien elementuen inguruan ere ez da behin-behineko likidazio gehiago egingo, foru arau honetako 134. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa eragotzi gabe.

#### 4. AZPIATALA ZERGA-ZORRA LIKIDATZEKO OFIZIOZ HASTEN DEN PROZEDURA

##### 127. artikulua.- Ofizioz hasten den likidazio-prozedura.

1. Zerga Administrazioak zergapeko bati errekerimendua bidaltzen badiu arauzko epean aurkeztu ez duen autoliquidazioa edo aitortpena aurkez dezan, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro ondoren behin-behineko likidazioa, zerga-zorren zenbatekoa zehaztuko duena, ofizioz egiteko prozedura abiarazi ahal izango du; nolana ere, zergapekoak epe horretan eskatutakoa aurkezten badu edo aurkeztu beharrik ez dagoela frogatzen badu behar bezala, behin-behineko likidazio hori ez da egingo.

2. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, Administrazioak likidazio-proposamena jakinaraziko dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alega dezan. Izapide hori ez da beharrezkoa izango interesdunak bera autoliquidazioen bidez eta errekerimenduen erantzunen bidez aurkeztutako egitateak, alegazioak eta frogak, edo gainontzeko zerga-ordenamenduan ezarritako aitortu behar orokorra betetzeko aurkeztutakoak baizik ez direnean kontuan hartzen.

3. Zerga-zorra Zerga Administrazioak dituen datuak, aurrekariak, zeinuak, indizeak, moduluak eta zerga-eragina duten gainerako elementuak kontuan hartuta zehaztuko da.

4. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa eragotzi gabe, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio gehiago egin ahal izango du foru arau honetako 126. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

#### 5. AZPIATALA BALIOAK EGIAZTATZEKO PROZEDURA

##### 128. artikulua.- Balioen egiaztapena.

1. Zerga Administrazioak balioak egiaztatzea ahal izango ditu foru arau honetako 56. artikuluan ezarritako bideak erabilia edo bertan edo kasuan kasuko zergari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera.

Prozedura hau berriazko jakinarazpenarekin abiaraziko da, edo bestela, nahikoa datu edukiz gero, behin-behineko likidazioa eta artikuluko honetako 2. idatz-zatian aipatutako balioespena batera jakinarazita. Nolana ere, prozedura foru arau honetako 65. artikuluan aipatutako preskripzio-epereen barruan amaitu beharko da.

2. Zerga Administrazioak zehaztutako balioa eta zergapekoak aitortutakoa bat ez badatoz, hark behin-behineko likidazioaren jakinarazpenarekin batera bere balioespenaren berri emango dio zergapekoari, behar bezala arrazoituta (erabilitako balibideak eta irizpideak azalduta), egiaztapen-egintza aurretik jakinarazita egon ezean.

Zergapekoak Administrazioaren balioespenen aurka ezin dute aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina peritu-tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute, bai eta balioespenaren inguruko ara-

f) Cuando se trate de una liquidación provisional en concepto de recargo de los previstos en el artículo 27 de esta Norma Foral y, en su caso, de los correspondientes intereses de demora.

3. Cuando el obligado tributario manifieste su disconformidad con los datos que obren en poder de la Administración, se aplicará lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 104 de esta Norma Foral.

4. Tanto las propuestas como las liquidaciones provisionales que practique la Administración tributaria deberán ser en todo caso motivadas con una referencia general a las circunstancias que se hayan tenido en cuenta en las mismas.

5. Dentro del plazo de prescripción a que se refiere el artículo 65 de esta Norma Foral, la Administración tributaria podrá practicar nuevas liquidaciones provisionales, cuando descubra que en la autoliquidación o declaración revisadas concurre alguna de las circunstancias a las que se refiere el apartado 2 del presente artículo u otras que no hubieran sido tenidas en cuenta en liquidaciones provisionales precedentes.

6. Lo previsto en el apartado anterior en ningún caso procederá cuando se hubiere practicado liquidación definitiva en relación con la misma autoliquidación o declaración, conforme a lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 97 de esta Norma Foral.

Tampoco procederá la práctica de nuevas liquidaciones provisionales respecto a las obligaciones tributarias o elementos de la misma que hubieren sido objeto de un procedimiento de comprobación limitada, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 134 de esta Norma Foral.

#### SUBSECCIÓN 4ª PROCEDIMIENTO DE LIQUIDACIÓN DE LA DEUDA TRIBUTARIA INICIADO DE OFICIO

##### Artículo 127.- Procedimiento de liquidación iniciado de oficio.

1. En los supuestos en los que la Administración tributaria hubiere requerido al obligado tributario para que efectúe la presentación de autoliquidaciones o declaraciones que no hubiere realizado en el plazo reglamentariamente establecido, se podrá iniciar por aquella, una vez transcurrido un mes desde el día siguiente al de la notificación del requerimiento, el procedimiento para la práctica de una liquidación provisional de oficio que cuantifique la deuda tributaria, salvo que en el mencionado plazo se subsane el incumplimiento o se justifique debidamente la inexistencia de la obligación.

2. Con carácter previo a la práctica de la liquidación provisional la Administración notificará al obligado tributario propuesta de liquidación para que alegue lo que convenga a su derecho. Dicho trámite no resultará necesario cuando no se hayan tenido en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el propio interesado a través de autoliquidaciones y contestaciones a requerimiento previo o que las aportadas por terceros en cumplimiento de una obligación de declaración establecida con carácter general por el ordenamiento tributario.

3. La determinación de la deuda tributaria se realizará en base a los datos, antecedentes, signos, índices, módulos y demás elementos de que disponga la Administración tributaria y que sean relevantes al efecto.

4. Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, la Administración tributaria podrá dictar nuevas liquidaciones provisionales conforme a lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 126 de esta Norma Foral.

#### SUBSECCIÓN 5ª PROCEDIMIENTO DE COMPROBACIÓN DE VALORES

##### Artículo 128.- Práctica de la comprobación de valores.

1. La Administración tributaria podrá proceder a la comprobación de valores de acuerdo con los medios previstos en el artículo 56 de esta Norma Foral, en la forma que se determine en la misma o en la normativa reguladora de cada tributo.

El procedimiento se iniciará mediante una notificación al efecto o, cuando se cuente con datos suficientes, mediante la notificación conjunta de la liquidación provisional y valoración a que se refiere el apartado 2 de este artículo, debiendo finalizar dentro del plazo de prescripción a que se refiere el artículo 65 de esta Norma Foral.

2. Si el valor determinado por la Administración tributaria es distinto al declarado por el obligado tributario, aquella, al tiempo de notificar la correspondiente liquidación provisional, comunicará la valoración realizada debidamente motivada, con expresión de los medios y criterios empleados, salvo que se haya notificado previamente el acto de comprobación.

Los obligados tributarios no podrán interponer recurso o reclamación independiente contra la valoración, pero podrán promover la tasación pericial contradictoria o plantear cualquier cuestión relativa

zoak planteatu ere erregularizazio-egintzaren aurka jartzen diren errekursoak edo erreklamazioak direla bide.

3. Foru arau bidez ezartzen bada egiaztatutako balioak ondoreak sortu behar dituela beste zergapeko batzuen kasuetan, administrazio jardulea balio horri lotu beharko zaio gainerako interesdunei dagokienez. Foru arauan interesdun horiei egiaztatutako balioa jakinarazi beharra ezarri ahal izango da, inpugnazioa edo tasazio kontrajarri sustatzeko aukera izan dezaten.

Geroagoko prozedura batean, egiaztatutako balioa beste zergapeko batzuei aplikatzen zaienean, haiek inpugnazioa edo tasazio kontrajarri sustatu ahal izango dute.

4. Zergapeko batek inpugnazioa edo tasazio kontrajarri sustatzen bada eta haren emaitza balioa desberdina bada, gainerako zergapekoei aplikatu ahal izango zaie eta aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoa hartuko da kontuan.

### **129. artikulua.- Tasazio kontrajarria.**

1. Interesdunek, foru arau honetako 56. artikuluan balioak zergen esparruan egiaztatzeko ezarritako bideak zuzentzeko, tasazio kontrajarri sustatu ahal izango dute Administrazioak egiaztatutako balioen aurka edo, zerga-arautegian ezarrita egonez gero, behar bezala jakinarazitako balioen egiaztapen-egintzaren aurka, lehenengo jar daitekeen errekursoaren edo erreklamazioaren epearen barruan.

Zergari buruzko arautegian ezarrita egonez gero, interesdunak berretzat gorde ahal izango du tasazio kontrajarri sustatzeko eskubidea, jakinarazpenean aitortutako balioak aldatzeko nahikoa datu eta arrazoi ez dela adierazi uste badu eta hori berraztertzeko errekurso edo administrazioarekiko diru-erreklamazio batean salatzen badu. Hala gertatzen bada, zergapekoak hilabeteko epea izango du tasazio kontrajarri sustatzeko, aurretik aurkeztutako errekursoa edo erreklamazioa ebazten duen erabakia administrazio-bidean irimo bihurtzen den egunetik aurrera.

Tasazio kontrajarria aurkezten bada edo zergapekoak, aurreko paragrafoan adierazi bezala, berretzat gordetzen badu hura sustatzeko eskubidea, likidazioaren betearazpena eta haren aurkako errekursoa edo erreklamazioa aurkezteko epea etengo dira.

2. Egiaztatutako balioa Administrazioaren peritu baten irizpenaren bidez zehaztu ez bada, haren peritu batek egin beharko du balioespena. Zerga bakoitzari buruzko foru arauak besterik xedatu ez ean, Administrazioaren perituak zehaztutako balioaren eta zergapekoak izendatu duen perituaren tasazioaren arteko diferentzia, balio absolutuetan aintzat hartuta, ez bada %10 eta 120.000 euro baino handiagoa, azken hori hartuko da oinarritzat likidaziorako. Emaitzak arestian aipatu mugak gainditzen baditu, hirugarren peritu bat izendatu beharko da.

- c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioak.

2. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpen irmoak eta ebazpen ekonomiko-administratiboa izan duten zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak ezin izango dira administrazio-bidean berrikusi, alegatutako arrazoiak edozein delarik ere. Salbuespen izango dira, dena den, foru arau honetako 224. artikuluan aurreikusitako erabateko deuseztasun kasuak, 227. artikuluko okerren zuzenketa eta 246. artikuluan araututako berrikuspenerako aparteko errekurtsuak.

Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpenak kaltegarritzat jo ahal izango dira, foru arau honetako 225. artikulua aurreikusitakoaren arabera.

3. Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak epai irmoren bidez berretsi direnean ezin izango dira inolara ere berrikusi, ezta administrazioarekiko diru-erreklamazioen ebazpenak ere.

#### **220. artikulua. Gaitasuna eta ordezkaritza, probaldia, jakinarazpenak eta ebazteko epeak.**

1. Titulu honetan aurreikusitako berrikuspenerako prozedura berezietan, errekurtsuetan eta erreklamazioetan foru arau honetako II. tituluko II. kapituluko 4. atalean gaitasunari eta ordezkaritzari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira; baita III. tituluko II. kapituluko 2. eta 3. ataletan ezarritako probaldi eta jakinarazpenei buruzko arauak ere.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeko, kontuan hartuko dira titulu honetako IV. kapituluaren arautzen diren berezitasunak.

3. Titulu honetan aurreikusitako ebazteko epeak zenbatzeko, foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa hartuko da kontuan.

#### **221. artikulua.- Ebazpenen arrazoitzea.**

1. Titulu honetan aurreikusitako berrikuspenerako prozedura bereziak, errekurtsuak eta erreklamazioak arrazoitzeak izan beharko dira, eta egitatei eta Zuzenbideko oinarriari aipamen laburra egin beharko diete.

da o de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas o en la prohibición para contratar con la Administración pública correspondiente.

c) El órgano competente para el reconocimiento del beneficio o incentivo fiscal, cuando consistan en la pérdida del derecho a aplicar el mismo, salvo lo dispuesto en la letra b) anterior.

d) El órgano competente para liquidar o el órgano superior inmediato de la unidad administrativa que ha propuesto el inicio del procedimiento sancionador, en los demás supuestos.

#### **Artículo 218.- Recursos contra sanciones.**

1. El acto de resolución del procedimiento sancionador podrá ser objeto de recurso o reclamación independiente.

En el supuesto de que el contribuyente impugne también la deuda tributaria, se acumularán ambos recursos o reclamaciones, siendo competente el que conozca la impugnación contra la deuda.

2. La interposición en tiempo y forma de un recurso o reclamación administrativa contra una sanción producirá los siguientes efectos:

a) La ejecución de las sanciones quedará automáticamente suspendida en período voluntario sin necesidad de aportar garantías hasta que sean firmes en vía administrativa.

b) No se exigirán intereses de demora por el tiempo que transcurra hasta la finalización del plazo de pago en período voluntario abierto por la notificación de la resolución que ponga fin a la vía administrativa.

c) Se perderá la reducción por conformidad del obligado tributario conforme a lo dispuesto en el artículo 192 de esta Norma Foral.

### **TÍTULO V REVISIÓN EN VÍA ADMINISTRATIVA**

#### **CAPÍTULO I NORMAS COMUNES**

#### **Artículo 219.- Medios de revisión.**

1. Los actos y actuaciones de aplicación de los tributos y los actos de imposición de sanciones tributarias podrán revisarse, conforme a lo establecido en los capítulos siguientes, mediante:

- a) Los procedimientos especiales de revisión.
- b) El recurso de reposición.
- c) Las reclamaciones económico-administrativas.

2. Las resoluciones firmes del Organismo Jurídico Administrativo de Álava, así como los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones sobre los que hubiera recaído resolución económico-administrativa, no podrán ser revisados en vía administrativa, cualquiera que sea la causa alegada, salvo en los supuestos de nulidad de pleno derecho previstos en el artículo 224, rectificación de errores del artículo 227 y recurso extraordinario de revisión regulado en el artículo 246 de esta Norma Foral.

Las resoluciones del Organismo Jurídico Administrativo de Álava podrán ser declaradas lesivas conforme a lo previsto en el artículo 225 de esta Norma Foral.

3. Cuando hayan sido confirmados por sentencia judicial firme, no serán revisables, en ningún caso, los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones, ni las resoluciones de las reclamaciones económico-administrativas.

#### **Artículo 220.- Capacidad y representación, prueba, notificaciones y plazos de resolución.**

1. En los procedimientos especiales de revisión, recursos y reclamaciones previstos en este Título serán de aplicación las normas sobre capacidad y representación establecidas en la Sección 4ª del Capítulo II del Título II de esta Norma Foral, y las normas sobre prueba y notificaciones establecidas en las Secciones 2ª y 3ª del Capítulo II del Título III de esta Norma Foral.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior se aplicará teniendo en consideración las especialidades reguladas en el Capítulo IV de este Título.

3. A efectos del cómputo de los plazos de resolución previstos en este Título será de aplicación lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 100 de esta Norma Foral.

#### **Artículo 221.- Motivación de las resoluciones.**

1. Las resoluciones de los procedimientos especiales de revisión, recursos y reclamaciones regulados en este Título deberán ser motivadas, con sucinta referencia a hechos y fundamentos de derecho.

2. Prozedura horietan honako egintza hauek ere arrazoitu egin behar dira:

a) Interesdunek aurkeztutako edozein motatako idazkiak ez onartzea.

b) Inpugnatutako egintzen betearazpena etetea, eteteko eskarari ezetza ematea, eta eteteko eskaera izapidetzeko ez onartzea.

c) Ofizios abstenitzea, arazoa ezagutzeari edo ezagutzen jarraitzeari uko eginez, gaia dela-eta.

d) Errefusatzea bidezkoa dela edo ez dela adieraztea, frogaren bat ez onartzea edo gainontzeko beste froga-eginbideren bat ez onartzea, eta auzialdia iraungitzat jotzea.

e) Prozeduran zehar interesdunen eskubide subjektiboak mugatzen dituzten egintzak.

f) Prozedura etetea, edo hura aurrera eramatea galarazten duten arrazoiak.

**222. artikulua.- Errekurritutako egintzaren betearazpena etetea.**

1. Berraztertze errekurtsoren bitartez edo bide ekonomiko-administratiboan inpugnatu den egintzaren betearazpena automatikoki etengo da interesdunak hala eskatzen duenean, baldin eta egintza horren zenbatekoa, etendurak sorraraziko dituen berandutza-interesak eta etenaldia eskatzeko unean egon litezkeen errekarguak bermatzen badira, arau bidez ezarritako eran.

Hala ere, berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko diru-errekamazioa garaiz eta behar den eran jartzeak inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura ekarriko du, inolako bermerik jarri gabe, gainera. Horretarako, beharrezkoa izango da zerga-zorra borondatez ordaintzeko aldiaren egotea edo premiamendu-probidentziaren aurkako errekurtsio bat aurkeztuta egotea. Bi kasuetan, betiere, borondatezko aldiaren azkenean, zorraren zenbatekoa arau bidez zehaztutako zenbatekoaren parekoa edo txikiagoa izan behar da.

Inpugnazioak zerga-zehapenen batean eragina badu, beraren betearazpena automatikoki etenda geratuko da, eta foru arau honetako 218. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, ez da zertan bermerik jarri behar izango.

Kudeaketa partekatua duen zerga bati buruzko zentsu-egintza inpugnatzen denean, ez da likidazioa kobratzeko prozeduran inolako ete-rik gertatuko. Horrek ez du galaraziko sartutako kopuruak itzultzea, bidezkoa denean, zentsu arloan ematen den ebazpenak ordainduta-ko likidazioaren emaitzan eragina badu.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den etendura automatikoa lortzeko beharrezko berme bakarrak hauek izango dira:

a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.

b) Kreditu-erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abala nahiz fidantza solidarioa edo kauzio-aseguruaen ziurtagiria.

c) Kaudimen nabaria duten Arabako Lurralde Historikoko beste zergadun batzuek emandako fidantza pertsonal eta solidarioa, zergen arloko arautegiak ezartzen duen zenbatekoa gainditzen ez duten zoren kasuetan soilik.

3. Interesdunak, etendura lortzeko, aurreko idatz-zatian aipatzen diren bermeak jartzetik ez duenean, etendura onartuko da baldin eta bestelako bermeak jartzen baditu eta nahiko irizten bazaie.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura erabaki ahal izango da:

a) Berme osoak edo bermeen zati bat dispentsatuta, betearazpenak konponbiderik gabeko edo konponbide zailako kalteak eragin ditzakeenean. Horrelakoetan, arau bidez ezarritako moduan erabakiko da etendura.

Letra honetan hizpide den kasuan, betearazpenari buruzko ebazpena aldatu ahal izango da ebazpen hori ematerakoan aintzat hartutako baldintzak betetzeari uzten bazaio, edo jarritako bermeek balioa zein eraginkortasuna galtzen badute, edo jakiten bada badirela berme gisa emateko moduko beste ondasun edo eskubide batzuk, betearazpenari buruzko ebazpena eman zenean ezagunak ez zirenak.

b) Bermerik eman behar izan gabe, inpugnatutako egintzan oker aritmetiko, material edo egitatezkoren bat egon daitekeela ikusten denean.

2. También deberán motivarse los actos dictados en estos procedimientos relativos a las siguientes cuestiones:

a) La inadmisión de escritos de cualquier clase presentados por los interesados.

b) La suspensión de la ejecución de los actos impugnados, la denegación de la suspensión y la inadmisión a trámite de la solicitud de suspensión.

c) La abstención de oficio para conocer o seguir conociendo del asunto por razón de la materia.

d) La procedencia o improcedencia de la recusación, la denegación del recibimiento a prueba o de cualquier diligencia de ella y la caducidad de la instancia.

e) Los que limiten derechos subjetivos de los interesados en el procedimiento.

f) La suspensión del procedimiento o las causas que impidan la continuación del mismo.

**Artículo 222.- Suspensión de la ejecución del acto recurrido.**

1. La ejecución del acto impugnado mediante recurso de reposición o en la vía económico-administrativa quedará suspendida automáticamente a instancia del interesado si se garantiza el importe de dicho acto, los intereses de demora que genere la suspensión y los recargos que pudieran proceder en el momento de la solicitud de suspensión, en los términos que se establezcan reglamentariamente.

No obstante, la interposición en tiempo y forma del recurso de reposición o de la reclamación económico-administrativa suspenderá, sin necesidad de aportar garantías, la ejecución del acto impugnado cuando la deuda tributaria estuviese en período voluntario de pago o se hubiese interpuesto el recurso contra la providencia de apremio, y siempre que, en ambos casos, la cuantía de la deuda pendiente a fin del período voluntario de pago fuese igual o inferior a la cuantía que reglamentariamente se establezca.

Si la impugnación afectase a una sanción tributaria, su ejecución quedará suspendida automáticamente sin necesidad de aportar garantías de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 218 de esta Norma Foral.

Si la impugnación afectase a un acto censal relativo a un tributo de gestión compartida, no se suspenderá en ningún caso, por este hecho, el procedimiento de cobro de la liquidación que pueda practicarse. Ello sin perjuicio de que, si la resolución que se dicte en materia censal afectase al resultado de la liquidación abonada, se realice la correspondiente devolución de ingresos.

2. Las garantías necesarias para obtener la suspensión automática a la que se refiere el apartado anterior serán exclusivamente las siguientes:

a) Depósito de dinero o valores públicos.

b) Aval o fianza de carácter solidario de entidad de crédito o sociedad de garantía recíproca o certificado de seguro de caución.

c) Fianza personal y solidaria prestada por otros contribuyentes del Territorio Histórico de Álava de reconocida solvencia, sólo para los débitos que no excedan de la cuantía que a estos efectos se establezca en la normativa tributaria.

3. Cuando el interesado no pueda aportar las garantías necesarias para obtener la suspensión a que se refiere el apartado anterior se acordará la suspensión, previa prestación de otras garantías que se estimen suficientes.

4. Sin perjuicio de lo anterior, podrá acordarse la suspensión de la ejecución del acto impugnado:

a) Con dispensa total o parcial de garantías cuando dicha ejecución pudiera causar perjuicios de difícil o imposible reparación, en los términos previstos reglamentariamente.

En el supuesto a que se refiere esta letra, se podrá modificar la resolución sobre la suspensión cuando se aprecie que no se mantienen las condiciones que motivaron la misma, cuando las garantías aportadas hubieran perdido valor o efectividad, o cuando se conozca la existencia de otros bienes o derechos susceptibles de ser entregados en garantía que no hubieran sido conocidos en el momento de dictarse la resolución sobre la suspensión.

b) Sin necesidad de aportar garantía cuando se aprecie que al dictarlo se ha podido incurrir en error aritmético, material o de hecho.

c) Zerga-zorrik edo zenbateko likidorik xedetzat ez duen egintza izan eta interesdunak haren etendura eskatzen duenean, betearazpenak kalte larriak edo konponezinak ekar ditzakeela frogatuz gero.

5. Errekurtsoak zerga-zor osoari eragiten ez badio, errekurritu den zatia betearazpena bakarrik etengo da: kasu horretan, zergadunak gainerako zenbatekoa ordaindu behar izango du.

6. Berraztertze errekurtsioan gertatzen bada etendura, bide ekonomiko-administratiboan mantendu ahal izango da, arau bidez zehaztutako baldintzak betez.

7. Administrazio-bidean gertatutako etendura mantendu egingo da, baldin eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epearen barruan zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazten badio errekurtsio hori sustatu duela eta etendura eskatu duela. Etendura horrek jarraitu egingo du, administrazio-bidean ezarri den bermeak indarrean jarraitzen badu eta bere eraginkortasuna mantentzen badu, harik eta organo judicialak eskatutako etenduraren gainean dagokion erabakia hartu arte.

Zehapenen kasuan, etendura aurreko paragrafoan adierazitako moduan mantenduko da inolako bermerik jarri behar izan gabe, harik eta erabaki judiciala hartu arte.

8. Berrikuspenarako aparteko errekurtsioaren bidez inpugnatutako egintzaren edo ebazpenaren betearazpena ezin izango da inola ere eten.

9. Errekurtsoaren edo erreklamazioaren gainean emandako ebazpenaren ondorioz inpugnatu den egintzaren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, etenaldi osoari dagozkion berandutza-interesak likidatuko dira, foru arau honetako 26. artikuluko 4. idatz-zatian eta 218. artikuluko 2. ean aurreikusten denaren kalterik gabe.

## II. KAPITULUA

### BERRIKUSPENERAKO PROZEDURA BEREZIAK

#### 223. artikulua.- Berrikuspenarako prozedura berezien motak.

Berrikuspenarako prozedura bereziak honakoak dira:

- Erabat deusezak diren egintzen berrikuspena.
- Egintza deuseztagarrien kaltegarritasunezko deklarazioa.
- Errebokazioa.
- Okerren zuzenketa.
- Zor ez diren sarreraren itzulketa.

#### 1. ATALA

#### ERABAT DEUSEZAK DIREN EGINTZEN BERRIKUSPENERAKO PROZEDURA

#### 224. artikulua.- Erabateko deusezatasunaren deklarazioa.

1. Zergen arloan emandako egintzen eta Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpenen erabateko deusezatasuna deklaratu ahal izango da, administrazio-bidea agortu badute edo epe barruan errekurritu ez badira, honako kasuetan:

- Konstituzioaren babesa duten eskubide eta askatasunak urratzen dituztenean.
- Gaiari eta lurraldeari dagokionez argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek emandakoak direnean.
- Ezinezko edukia dutenean.
- Zigor Zuzenbideko arau-hauste direnean, edo halako arau-hauste baten ondorioz ematen direnean.
- Legezko prozedura erabat bazterturik edo kide anitzeko organoetan borondatea eratzeko funtsezko erregelak barnean dituzten arauak erabat bazterturik emandakoak direnean.
- Antolamendu juridikoaren kontra doazen berriarazko nahiz us-tezko egintzak direnean, ahalmen edo eskubideak eskuratzeko badira, horiek eskuratzeko oinarritzko betekizunak izan ez arren.
- Foru arauetan edo legeetan berriaraz ezarritako beste edozein.

2. Artikulu honek aipatzen duen deusezatasuna deklaratzeko prozedura hasi ahal izango da:

- Egintza eman zuen organoaren edo goragoko baten erabakiaren bidez.
- Interesdunak hala eskatu duelako.

3. Interesdunek aurkeztutako eskabideak ez izapidetzea erabaki ahal izango da organo aholku-emaileari irizpenik eskatu behar izan gabe (horretarako bidezko arrazoiak emanez), egintza ez denean inoia administrazio-bidean edo eskabidea ez denean artikulu honetako

c) Cuando se trate de actos que no tengan por objeto una deuda tributaria o cantidad líquida y así lo solicite el interesado y justifique que su ejecución pudiera causar perjuicios de imposible o difícil reparación.

5. Si el recurso no afecta a la totalidad de la deuda tributaria, la suspensión se referirá a la parte recurrida, quedando obligado el recurrente a ingresar la cantidad restante.

6. La suspensión producida en el recurso de reposición se podrá mantener en la vía económico-administrativa en las condiciones que se determinen reglamentariamente.

7. Se mantendrá la suspensión producida en vía administrativa cuando el interesado comunique a la Administración tributaria en el plazo de interposición del recurso contencioso-administrativo que ha promovido dicho recurso y ha solicitado la suspensión en el mismo. Dicha suspensión continuará, siempre que la garantía que se hubiese aportado en vía administrativa conserve su vigencia y eficacia, hasta que el órgano judicial adopte la decisión que corresponda en relación con la suspensión solicitada.

Tratándose de sanciones, la suspensión se mantendrá, en los términos previstos en el párrafo anterior y sin necesidad de prestar garantía, hasta que se adopte la decisión judicial.

8. La ejecución del acto o resolución impugnado mediante un recurso extraordinario de revisión no podrá suspenderse en ningún caso.

9. Cuando deba ingresarse total o parcialmente el importe derivado del acto impugnado como consecuencia de la resolución del recurso o reclamación, se liquidará interés de demora por todo el período de suspensión, sin perjuicio de lo previsto en el apartado 4 del artículo 26 y en el apartado 2 del artículo 218 de esta Norma Foral.

## CAPÍTULO II

### PROCEDIMIENTOS ESPECIALES DE REVISIÓN

#### Artículo 223.- Clases de procedimientos especiales de revisión.

Son procedimientos especiales de revisión los de:

- Revisión de actos nulos de pleno derecho.
- Declaración de lesividad de actos anulables.
- Revocación.
- Rectificación de errores.
- Devolución de ingresos indebidos.

#### SECCIÓN 1ª

#### PROCEDIMIENTO DE REVISIÓN DE ACTOS NULOS DE PLENO DERECHO

#### Artículo 224.- Declaración de nulidad de pleno derecho.

1. Podrá declararse la nulidad de pleno derecho de los actos dictados en materia tributaria, así como de las resoluciones del Organismo Jurídico Administrativo de Álava, que hayan puesto fin a la vía administrativa o que no hayan sido recurridos en plazo, en los siguientes supuestos:

- Que lesionen los derechos y libertades susceptibles de amparo constitucional.
- Que hayan sido dictados por órgano manifiestamente incompetente por razón de la materia o del territorio.
- Que tengan un contenido imposible.
- Que sean constitutivos de infracción penal o se dicten como consecuencia de ésta.
- Que hayan sido dictados prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido para ello o de las normas que contienen las reglas esenciales para la formación de la voluntad en los órganos colegiados.
- Los actos expresos o presuntos contrarios al ordenamiento jurídico por los que se adquieren facultades o derechos cuando se carezca de los requisitos esenciales para su adquisición.
- Cualquier otro que se establezca expresamente en una Norma Foral o ley.

2. El procedimiento para declarar la nulidad a que se refiere este artículo podrá iniciarse:

- Por acuerdo del órgano que dictó el acto o de su superior jerárquico.
- A instancia del interesado.

3. Se podrá acordar motivadamente la inadmisión a trámite de las solicitudes formuladas por los interesados, sin necesidad de recabar dictamen del órgano consultivo, cuando el acto no sea firme en vía administrativa o la solicitud no se base en alguna de las cau-

1. idatz-zatian zehaztutako deuseztasunerako arrazoietan oinarritzen, edo modu nabarian oinarririk ez duenean, baita funtsean antzekoak ziren beste eskabide batzuek muinari erreparatuta aurretiaz baztertu direnean ere.

4. Prozeduran interesdunari entzunaldia emango zaio eta egin-tzaren bidez eskubideak aintzatetsi zaizkienei entzungo zaie, baita egin-tzaren ondorioz euren interesetan kalteak jasan dituztenei ere.

Deuseztasunaren deklarazioa egin aurretik batzorde aholku-emaileak aldeko irizpena eman beharko du.

5. Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko eremuan, Diputatuen Kontseiluari dagokio honelako prozedurak ebaztea.

6. Berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizioz hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarotzen bada berriazko ebazpenik jakinarazi gabe, honako ondoreak sortuko dira:

a) Ofizioz hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera.

b) Administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da, prozedura interesdunaren eskariz hasi bada.

7. Berriazko zein ustezko ebazpenak edo interesdunen eskabideak ez izapidetzeko erabakiak agortuko du administrazio-bidea.

## 2. ATALA

### EGINTZA DEUSEZTAGARRIEN KALTEGARRITASUNEZKO DEKLARAZIOA

#### 225. artikulua.- Kaltegarritasunezko deklarazioa.

1. Foru arau honetako 224. eta 227. artikuluek aurreikusten duten kasuetan ez bada, Zerga Administrazioak ezin izango ditu deuseztatu berak emandako egintzak eta ebazpenak interesdunen kalteetan.

Zerga Administrazioak bere egintza eta ebazpenak interes publikoarentzat kaltegarriak direla adierazi ahal izango du, nahiz eta interesdunentzat onuragarriak izan, baldin eta antolamendu juridikoaren edozein motatako arau-haustea badakarte. Horrela, gero administrazioarekiko auzien bidean inpugnatzeko aukera izango du.

2. Kaltegarritasunezko deklarazioa ezin izango da egin administrazio-egintza jakinarazi zenetik lau urte igaro badira, eta gainera, prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei aurretiaz entzutea eskatuko du.

3. Prozedura hasi zenetik sei hilabeteko epea igarota, oraindik ez bada kaltegarritasunaren deklaraziorik eman, prozedura iraungi egingo da.

4. Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko eremuan, Diputatuen Kontseiluari dagokio kaltegarritasunezko deklarazioa egitea.

## 3. ATALA

### ERREBOKAZIOA

#### 226. artikulua.- Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak errebokatzea.

1. Zerga Administrazioak bere egintzak errebokatu ahal izango ditu interesdunen mesedetan, baldin eta antolamendu juridikoa modu nabarian urratzen dutela uste badu, edo norbanakoen egoera juridikoari eragiten dioten inguruabarrek egintzaren desegokitasuna agerian uzten badute, edo prozedura izapidetzean interesdunek babesik eza jasaten badute.

Errebokazioak ezin izango du, inola ere, zergen arloko arauak onartzen ez duten dispensa edo salbuespenik sorrarazi; ezta berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren aurka joan ere.

2. Behin preskripzio-epea beterik, egintza ezin izango da errebokatu.

3. Errebokazio-prozedura ofizioz hasiko da beti, eta arau bidez izendatzen den organoak izango du hura deklaratzeko eskumena.

Espedientean interesdunari entzungo zaie, eta, organo eskudunak beharrezkotzat jotzen badu, aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoak txostena egingo du egintza errebokatzearen bidez kotasunari buruz.

4. Berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia jakinarazten denetik hasita.

zas de nulidad a que se refiere el apartado 1 de este artículo o carezca manifiestamente de fundamento, así como en el supuesto de que se hubieran desestimado en cuanto al fondo otras solicitudes sustancialmente iguales.

4. En el procedimiento se dará audiencia al interesado y serán oídos aquéllos a quienes reconoció derechos el acto o cuyos intereses resultaron afectados por el mismo.

La declaración de nulidad requerirá dictamen favorable previo de la Comisión Consultiva.

5. En el ámbito de las competencias de la Diputación Foral de Álava la resolución de este procedimiento corresponderá al Consejo de Diputados.

6. El plazo máximo para notificar resolución expresa será de un año desde que se presente la solicitud por el interesado o desde que se le notifique el acuerdo de iniciación de oficio del procedimiento.

El transcurso del plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera notificado resolución expresa producirá los siguientes efectos:

a) La caducidad del procedimiento iniciado de oficio, sin que ello impida que pueda iniciarse de nuevo otro procedimiento con posterioridad.

b) La desestimación por silencio administrativo de la solicitud, si el procedimiento se hubiera iniciado a instancia del interesado.

7. La resolución expresa o presunta o el acuerdo de inadmisión a trámite de las solicitudes de los interesados pondrán fin a la vía administrativa.

## SECCIÓN 2ª

### DECLARACIÓN DE LESIVIDAD DE ACTOS ANULABLES

#### Artículo 225.- Declaración de lesividad.

1. Fuera de los casos previstos en los artículos 224 y 227 de esta Norma Foral, la Administración tributaria no podrá anular en perjuicio de los interesados sus propios actos y resoluciones.

La Administración tributaria podrá declarar lesivos para el interés público sus actos y resoluciones favorables a los interesados que incurran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico, a fin de proceder a su posterior impugnación en vía contencioso-administrativa.

2. La declaración de lesividad no podrá adoptarse una vez transcurridos cuatro años desde que se notificó el acto administrativo y exigirá la previa audiencia de cuantos aparezcan como interesados en el procedimiento.

3. Transcurrido el plazo de seis meses desde la iniciación del procedimiento sin que se hubiera declarado la lesividad, se producirá la caducidad del mismo.

4. En el ámbito de las competencias de la Diputación Foral de Álava, la declaración de lesividad corresponderá al Consejo de Diputados.

## SECCIÓN 3ª

### REVOCACIÓN

#### Artículo 226.- Revocación de los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones.

1. La Administración tributaria podrá revocar sus actos en beneficio de los interesados cuando se estime que infringen manifiestamente el ordenamiento jurídico, cuando circunstancias sobrevenidas que afecten a una situación jurídica particular pongan de manifiesto la improcedencia del acto dictado, o cuando en la tramitación del procedimiento se haya producido indefensión a los interesados.

La revocación no podrá constituir, en ningún caso, dispensa o exención no permitida por las normas tributarias, ni ser contraria al principio de igualdad, al interés público o al ordenamiento jurídico.

2. La revocación sólo será posible mientras no haya transcurrido el plazo de prescripción.

3. El procedimiento de revocación se iniciará siempre de oficio, y será competente para declararla el órgano que se determine reglamentariamente.

En el expediente, en su caso, se dará audiencia a los interesados y deberá incluirse, si lo estimara necesario el órgano competente, un informe del órgano con funciones de asesoramiento jurídico sobre la procedencia de la revocación del acto.

4. El plazo máximo para notificar resolución expresa será de seis meses desde la notificación del acuerdo de iniciación del procedimiento.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igaro ondoren ez baldin bada berariazko ebazpenik eman, prozedura iraungi egingo da.

5. Prozedura honen bidez ematen diren ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute.

#### 4. ATALA OKERREN ZUZENKETA

##### 227. artikulua.- Okerren zuzenketa.

1. Egintza edo erreklamazioaren ebazpena eman duen organoak noiznahi zuzenduko ditu, bai ofizios bai interesdunak hala eskatu duelako, oker material, aritmetiko zein egitatezkoak, baldin eta preskripzio-epea igaro ez bada.

Zehazki, prozedura honen bidez zuzenduko dira administrazio-arekiko diru-erreklamazioetako egintzak eta ebazpenak, espedienteko agirietan okerren bat azaltzen denean.

Ebazpenaren bidez, zenbatekoan edo egintza nahiz ebazpenaren beste edozein elementutan dagoen okerra zuzenduko da.

2. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizios hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, honako ondoreak sortuko dira:

a) Ofizios hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera.

b) Administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da, prozedura interesdunaren eskariz hasi bada.

3. Prozedura honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertze errekurtsoa eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango dira.

#### 5. ATALA ZOR EZ DIREN SARREREN ITZULKETA

##### 228. artikulua.- Zor ez diren sarrerak itzultzeko prozedura.

1. Zor ez diren sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesten duen prozedura ofizios edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako kasuetan:

a) Zerga-zorren edo zehapenen ordainketa birritan egiten denean.

b) Ordaindutako zenbatekoa administrazio-egintzatik edo autoliquidaziotik sortutakoa baino handiagoa denean.

c) Preskripzio-epeak igaro ostean zerga-zorren eta zerga-zehapenen zenbatekoak ordaindu direnean.

d) Zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean.

Idatz-zati honetan ezarritako prozedura araubidez garatuko da, eta foru arau honetako 227. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa ezarriko da.

2. Itzultzeko eskubidea artikuluko 1. idatz-zatian araututako prozeduraren bidez, administrazio-egintza baten bidez edo ebazpen ekonomiko-administratibo zein judicial baten bidez aintzatesi bada, arau bidez zehaztutakoaren arabera betearaziko da itzulketa.

3. Zor ez zen sarrera eragin zuen zergak aplikatzeko edo zehapenak ezartzeko egintza irmo bihurtuta badago, foru arau honetako 223. artikuluko a), c) eta d) letretan ezartzen diren berrikuspenerako prozedura berezien bidez edo 246. artikuluan ezartzen diren berrikuspenerako aparteko errekurtsoen bidez bakarrik eskatu edo sustatu ahal izango da itzulketa.

4. Zergapekoak uste duenean autoliquidazioaren baten aurkezpenak zor ez zen ordainketaren bat eragin duela, autoliquidazio hori zuzentzeko eskatu ahal izango du, foru arau honetako 116. artikuluko 4. idatz-zatian xedatzen denarekin bat etorritik.

5. Zor ez ziren sarrerak itzultzean berandutza-interesak ere likidatuko dira, foru arau honetako 32. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Prozedura honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertze errekurtsoa eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango dira.

Transcurrido el plazo establecido en el párrafo anterior sin que se hubiera notificado resolución expresa, se producirá la caducidad del procedimiento.

5. Las resoluciones que se dicten en este procedimiento pondrán fin a la vía administrativa.

#### SECCIÓN 4ª RECTIFICACIÓN DE ERRORES

##### Artículo 227.- Rectificación de errores.

1. El órgano que hubiera dictado el acto o la resolución de la reclamación rectificará en cualquier momento, de oficio o a instancia del interesado, los errores materiales, de hecho o aritméticos, siempre que no hubiera transcurrido el plazo de prescripción.

En particular, se rectificarán por este procedimiento los actos y las resoluciones de las reclamaciones económico-administrativas en los que se hubiera incurrido en error de hecho que resulte de los propios documentos incorporados al expediente.

La resolución corregirá el error en la cuantía o en cualquier otro elemento del acto o resolución que se rectifica.

2. El plazo máximo para notificar resolución expresa será de seis meses desde que se presente la solicitud por el interesado o desde que se le notifique el acuerdo de iniciación de oficio del procedimiento.

El transcurso del plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera notificado resolución expresa producirá los siguientes efectos:

a) La caducidad del procedimiento iniciado de oficio, sin que ello impida que pueda iniciarse de nuevo otro procedimiento con posterioridad.

b) La desestimación por silencio administrativo de la solicitud, si el procedimiento se hubiera iniciado a instancia del interesado.

3. Las resoluciones que se dicten en este procedimiento serán susceptibles de recurso de reposición y de reclamación económico-administrativa.

#### SECCIÓN 5ª DEVOLUCIÓN DE INGRESOS INDEBIDOS

##### Artículo 228.- Procedimiento para la devolución de ingresos indebidos.

1. El procedimiento para el reconocimiento del derecho a la devolución de ingresos indebidos se iniciará de oficio o a instancia del interesado, en los siguientes supuestos:

a) Cuando se haya producido una duplicidad en el pago de deudas tributarias o sanciones.

b) Cuando la cantidad pagada haya sido superior al importe a ingresar resultante de un acto administrativo o de una autoliquidación.

c) Cuando se hayan ingresado cantidades correspondientes a deudas o sanciones tributarias después de haber transcurrido los plazos de prescripción.

d) Cuando así lo establezca la normativa tributaria.

Reglamentariamente se desarrollará el procedimiento previsto en este apartado, al que será de aplicación lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 227 de esta Norma Foral.

2. Cuando el derecho a la devolución se hubiera reconocido mediante el procedimiento previsto en el apartado 1 de este artículo o en virtud de un acto administrativo o una resolución económico-administrativa o judicial, se procederá a la ejecución de la devolución en los términos que reglamentariamente se establezcan.

3. Cuando el acto de aplicación de los tributos o de imposición de sanciones en virtud del cual se realizó el ingreso indebido hubiera adquirido firmeza, únicamente se podrá solicitar la devolución del mismo instando o promoviendo la revisión del acto mediante alguno de los procedimientos especiales de revisión establecidos en las letras a), c) y d) del artículo 223 y mediante el recurso extraordinario de revisión regulado en el artículo 246 de esta Norma Foral.

4. Cuando un obligado tributario considere que la presentación de una autoliquidación ha dado lugar a un ingreso indebido, podrá instar la rectificación de la autoliquidación de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 116 de esta Norma Foral.

5. En la devolución de ingresos indebidos se liquidarán intereses de demora de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 32 de esta Norma Foral.

6. Las resoluciones que se dicten en este procedimiento serán susceptibles de recurso de reposición y de reclamación económico-administrativa.



### III. KAPITULUA BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

#### **229. artikulua.- Berraztertzeko errekurtsoren xedea eta izaera.**

1. Administrazioarekiko diru-erreklaiazioa ekar dezaketen Zerga Administrazioaren egintzei berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaie, kapitulu honetan xedatzen denaren arabera.

2. Berraztertzeko errekurtsoa jartzekotan, administrazioarekiko diru-erreklaiazioa baino lehen jarri beharko da.

Interesdunak berraztertzeko errekurtsoa jartzen badu, ezin izango du administrazioarekiko diru-erreklaiaziorik sustatu errekurtsoa berariaz ebazten den arte edo administrazioaren isiltasunez ezetsizat jo ahal den arte.

Errekurtsoa aurkezteko ezarritako epean, berraztertzeko errekurtsoa eta administrazioarekiko diru-erreklaiazioa jartzen badira (biak ere egintza berberaren aurka), lehenengo aurkeztu dena izapidetu egingo da eta bigarrena onartezintzat joko da. Biak aldi berean jartzen badira, berraztertzeko errekurtsok izango du lehentasuna.

#### **230. artikulua.- Berraztertzeko errekurtsoren hasiera eta izapidetzea.**

1. Hilabeteko epea egongo da berraztertzeko errekurtsoa jartzeko, errekurritu daitekeen egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita. Administrazioaren isiltasunaren ondoreak gertatzen diren unetik aurrera ere jarri ahal izango da.

Aldian-aldian mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, errekurtsoa jarri daiteke ordaintzeko borondatezko aldian edo hileko epean errekurtsoa amaitu eta biharamunean kontaktzen hasita.

2. Errekurtsogileak espedientea aztertu beharra badu alegazioak egiteko, errekurtsoa jartzeko epearen barruan joan beharko du espedientea ikustera.

3. Berraztertzeko errekurtsoa jartzeko legitimatuta daudenei eta horretarako interesa dutenei, administrazioarekiko diru-erreklaiazioei buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

4. Berraztertze honen bidez, espedientean ageri diren egitatezko zein Zuzenbideko arazo guztien berri ematen zaio organo eskudunari, ebatz ditzan, hala errekurtsok aurkeztu diren arazoak nola bestelakoak. Hala ere, ezin izango da, inola ere, errekurtsogilearen hasierako egoera txartu.

Organo eskudunak interesdunek aurkeztu ez dituzten arazoak aztertu eta ebaztea erabakitzen badu, beraiei jakinaraziko die alegazioak egin ditzaten.

#### **231. artikulua.- Berraztertzeko errekurtsoren ebazpena.**

1. Errekurritu den egintza eman zuen organo bera izango da berraztertzeko errekurtsoa ezagutu eta ebazteko eskuduna.

Eskuordetze bidez emandako egintzetan, eta aurkakoa esaten ez den bitartean, berraztertzeko errekurtsok eskuordetutako organoak ebatziko du.

2. Berraztertzeko errekurtsok ezagutzeko eskumena duen organoak ezin izango dio ebazpena emateari ukorik egin, eta ezin izango du arrazoizko zalantzarik edo legezko manuen gabeziarik alegatu.

Ebazpenean gertaeren azalpen laburra emango da, eta erabakia hartzeko erabili diren oinarri juridikoak jasoko dira behar bezala arrazoituta.

3. Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, errekurtsok aurkeztu eta biharamunetik hasita.

Ebazpena emateko gehieneko epea igarota, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada eta, betiere, errekurritutako egintza etetea aurrez erabaki bada, berandutza-interesaren sortzapena gelditu egingo da, foru arau honetako 26. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako baldintzen arabera.

4. Errekurtsok jarri zenetik hiru hilabete igarotakoan, interesdunak errekurtsok ezetsi egin dela ulertu ahal izango du eta bidezko erreklaiazioa jarri.

5. Berraztertzeko errekurtsoren ebazpenaren aurka ezin da berri ere berraztertzeko errekurtsok jarri.

### CAPÍTULO III RECURSO DE REPOSICIÓN

#### **Artículo 229.- Objeto y naturaleza del recurso de reposición.**

1. Los actos dictados por la Administración tributaria susceptibles de reclamación económico-administrativa podrán ser objeto de recurso potestativo de reposición, con arreglo a lo dispuesto en este Capítulo.

2. El recurso de reposición deberá interponerse, en su caso, con carácter previo a la reclamación económico-administrativa.

Si el interesado interpusiera el recurso de reposición no podrá promover la reclamación económico-administrativa hasta que el recurso se haya resuelto de forma expresa o hasta que pueda considerarlo desestimado por silencio administrativo.

Cuando en el plazo establecido para recurrir se hubieran interpuesto recurso de reposición y reclamación económico-administrativa que tuvieran como objeto el mismo acto, se tramitará el presentado en primer lugar y se declarará inadmisibles el segundo. Si se hubieran interpuesto simultáneamente, se tramitará el recurso de reposición.

#### **Artículo 230.- Iniciación y tramitación del recurso de reposición.**

1. El plazo para la interposición del recurso de reposición será de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación del acto recurrible. También podrá interponerse a partir del momento en que se produzcan los efectos del silencio administrativo.

Tratándose de deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, el recurso podrá interponerse durante el periodo voluntario de pago o durante el plazo de un mes contando a partir del día siguiente al de la finalización de aquél.

2. Si el recurrente precisase del expediente para formular sus alegaciones, deberá comparecer durante el plazo de interposición del recurso para que se le ponga de manifiesto.

3. A los legitimados e interesados en el recurso de reposición les serán aplicables las normas establecidas al efecto para las reclamaciones económico-administrativas.

4. La reposición somete a conocimiento del órgano competente para su resolución todas las cuestiones de hecho o de derecho que ofrezca el expediente, hayan sido o no planteadas en el recurso, sin que en ningún caso se pueda empeorar la situación inicial del recurrente.

Si el órgano competente estima pertinente examinar y resolver cuestiones no planteadas por los interesados, las expondrá a los mismos para que puedan formular alegaciones.

#### **Artículo 231.- Resolución del recurso de reposición.**

1. Será competente para conocer y resolver el recurso de reposición el órgano que dictó el acto recurrido.

Tratándose de actos dictados por delegación y salvo que en ésta se diga otra cosa, el recurso de reposición se resolverá por el órgano delegado.

2. El órgano competente para conocer del recurso de reposición no podrá abstenerse de resolver, sin que pueda alegarse duda racional o deficiencia de los preceptos legales.

La resolución contendrá una exposición sucinta de los hechos y los fundamentos jurídicos adecuadamente motivados que hayan servido para adoptar el acuerdo.

3. El plazo máximo para notificar la resolución será de tres meses contados desde el día siguiente al de presentación del recurso.

Transcurrido el plazo máximo para resolver sin haberse notificado resolución expresa, y siempre que se haya acordado la suspensión del acto recurrido, dejará de devengarse el interés de demora en los términos previstos en el apartado 4 del artículo 26 de esta Norma Foral.

4. Transcurrido el plazo de tres meses desde la interposición, el interesado podrá considerar desestimado el recurso al objeto de interponer la reclamación procedente.

5. Contra la resolución de un recurso de reposición no puede interponerse de nuevo este recurso.

IV. KAPITULUA  
ADMINISTRAZIOAREKIKO DIRU-ERREKLAMAZIOAK

1. ATALA  
XEDAPEN OROKORRAK

1. AZPIATALA  
ADMINISTRAZIOAREKIKO  
DIRU-ERREKLAMAZIOEN EREMUA

**232. artikulua.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioen aplikazio-eremua.**

Bide ekonomiko-administratiboan erreklamatu ahal izango da, honako gaiak direla-eta:

- a) Zergen aplikazioa eta zerga-zehapenen ezarpena.
- b) Zuzenbide Publikoko beste sarrera batzuen bilketa.
- c) Foru arau honek berariaz ezartzen duen beste edozein.

**233. artikulua.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioa ekar dezaketan egintzak.**

1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioa onargarria izango da, aurreko artikulua aipatzen dituen gaiak dagokienez, honako egintzen aurka:

a) Eskubideren bat behin-behinean edo behin betiko aintzatesi nahiz ukatzen dutenak edo betebeharrak nahiz eginbeharren bat aitortzen dutenak.

b) Izapidezkoak, baldin eta zuzenean nahiz zeharka arazoaren munitari buruz erabakitzen badute edo prozedurari amaiera ematen badiot.

2. Zergak aplikatzeari dagokionez, erreklamazioa honako egintza hauen kontra jar daiteke:

- a) Behin-behineko edo behin betiko likidazioak.
- b) Autolikidazioa zuzentzeko eskaerarekin zerikusia duten berarizko zein ustezko ebazpenak.
- c) Errenta, produktu, ondasun, eskubide eta gastuen balio-egiaztapenak; baita balioak, etekinak eta oinarriak finkatzeko egintzak ere, zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean.
- d) Zergen arloko salbuespenak, onurak edo pizgarriak ukatu edo aintzatesten dituzten egintzak.
- e) Amortizaziorako plan bereziak onartu edo ukatzen dituzten egintzak.
- f) Zergapeko bati aplikatu beharreko zerga-erregimena zehazten duten egintzak, beraren etorkizuneko betebeharrarako garrantzizkoak direnean (nahiz eta formalak izan). Salbuespen izango da, dena den, administrazioa aurretik lotesten duten prozedurentzat foru arau honetako III. tituluko I. kapituluko 2. atalean xedatzen dena.
- g) Zerga-bilketan diharduten organoen jarduketetan emandako egintzak.
- h) Zergen arloko arautegiak ezartzen dituen egintzak.

3. Era berean, erreklamatzeko modukoak izango dira zerga-zehapenak ezartzen dituzten egintzak.

4. Erreklamatzeko modukoak izango dira, gainera, arau bidez zehaztutako betekizunak ezarritako moduan bete ostean, norbanakoen jarduketa edo omisio hauek:

- a) Legez ezarritako jasanarazpenari eta jasanarazi beharri buruzkoak.
  - b) Atxikpenak edo konturako sarrerak egin eta jasan beharri buruzkoak.
  - c) Enpresaburu eta profesionalen eragiten dieten fakturak egin, eman eta zuzendu beharri buruzkoak.
  - d) Ordezkoaren eta zergadunaren arteko harremanetatik sortutakoak.
5. Ez dira administrazioarekiko diru-erreklamazioak onartuko honako egintzei dagozkienean:

- a) Administrazio-bidean erreklamazioa jartzeko aukera ematen dutenak (bide judizialean, zibilean edo lan arloan baino lehen) edo bide hori agortzen dutenak.
- b) Administrazio-bidea agortuko duen ebazpena ematea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari dagokion prozeduratan ematen direnak.
- c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioaren eremutik kanpo uzten dituen foru arau edo legezko xedapenen baten itzalpean ematen direnak.

CAPÍTULO IV  
RECLAMACIONES ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS

SECCIÓN 1ª  
DISPOSICIONES GENERALES

SUBSECCIÓN 1ª  
ÁMBITO DE LAS RECLAMACIONES  
ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS

**Artículo 232.- Ámbito de aplicación de las reclamaciones económico-administrativas.**

Podrá reclamarse en vía económico-administrativa en relación con las siguientes materias:

- a) La aplicación de los tributos y la imposición de sanciones tributarias.
- b) La recaudación de otros ingresos de derecho público.
- c) Cualquier otra que se establezca expresamente por Norma Foral.

**Artículo 233.- Actos susceptibles de reclamación económico-administrativa.**

1. La reclamación económico-administrativa será admisible, en relación con las materias a las que se refiere el artículo anterior, contra los actos siguientes:

- a) Los que provisional o definitivamente reconozcan o denieguen un derecho o declaren una obligación o un deber.
- b) Los de trámite que decidan, directa o indirectamente, el fondo del asunto o pongan término al procedimiento.

2. En materia de aplicación de los tributos, son reclamables:

- a) Las liquidaciones provisionales o definitivas.
- b) Las resoluciones expresas o presuntas derivadas de una solicitud de rectificación de una autoliquidación.
- c) Las comprobaciones de valor de rentas, productos, bienes, derechos y gastos, así como los actos de fijación de valores, rendimientos y bases, cuando la normativa tributaria lo establezca.
- d) Los actos que denieguen o reconozcan exenciones, beneficios o incentivos fiscales.
- e) Los actos que aprueben o denieguen planes especiales de amortización.
- f) Los actos que determinen el régimen tributario aplicable a un obligado tributario, en cuanto sean determinantes de futuras obligaciones, incluso formales, a su cargo, salvo lo dispuesto para los procedimientos de vinculación administrativa previa en la Sección 2ª del Capítulo I del Título III de esta Norma Foral.

g) Los actos dictados en las actuaciones de los órganos de recaudación.

h) Los actos respecto a los que la normativa tributaria así lo establezca.

3. Asimismo, serán reclamables los actos que impongan sanciones tributarias.

4. Serán reclamables, igualmente, previo cumplimiento de los requisitos y en la forma que se determine reglamentariamente, las siguientes actuaciones u omisiones de los particulares en materia tributaria:

- a) Las relativas a las obligaciones de repercutir y soportar la repercusión prevista legalmente.
- b) Las relativas a las obligaciones de practicar y soportar retenciones o ingresos a cuenta.
- c) Las relativas a la obligación de expedir, entregar y rectificar facturas que incumbe a los empresarios y profesionales.
- d) Las derivadas de las relaciones entre el sustituto y el contribuyente.

5. No se admitirán reclamaciones económico-administrativas respecto de los siguientes actos:

- a) Los que den lugar a reclamación en vía administrativa previa a la judicial, civil o laboral o pongan fin a dicha vía.
- b) Los dictados en procedimientos en los que esté reservada al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos la resolución que ultime la vía administrativa.
- c) Los dictados en virtud de una Norma Foral o disposición de rango legal que los excluya de reclamación económico-administrativa.

2. AZPIATALA  
ANTOLAKETA ETA ESKUMENAK

**234. artikulua.- Arabako Lege eta Administrazio Erakundea.**

1. Bide ekonomiko-administratiboko zerga-erreklamazioak eza-gutzea Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari dagokio. Honek lotura funtzionalik gabe jardungo du bere eskumenak erabiltzen dituztean.

2. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen eskumenak uko egin ezinezkoak eta luzaezinak izango dira eta interesdunek ezin izango dituzte aldatu, nahi izanda ere.

**235. artikulua.- Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen eskumena.**

